



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 27a

52. ZK.

A U R K I B I D E A

I S A I L A:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025 (2. or.).

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2022ko apirilaren 6ko erabakiaren bidez, Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025 igorri dio Nafarroako Parlamentuari, honek iritzia eman dezan.

Horrenbestez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduaren 202. artikuluan xedatutakoarekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025 izapidetzeko onartzea (10-22/CDP-00004).

2. Xedatzea hari buruzko erabakia Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak hartuko duela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakariordea: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025.

AURKIBIDEA

1. Sarrera (3. or.).
 2. Plana itxuratzeko parte-hartze prozesua (4. or.).
 3. Lege-testuingurua eta plangintza (6. or.).
 4. Diagnostikoa (14. or.).
 5. Estrategia eta helburuak (26. or.).
 6. Programak eta neurriak (35. or.).
 7. Gobernantza (61. or.).
 8. Aginte-koadroa eta behatokia (65. or.).
 9. Aurrekontua (70. or.).
1. eranskina. Araudi-esparruak eta lotutako planak (72. or.).
 2. eranskina. Adierazleen kalkulua (73. or.).

1. SARRERA



Juan Cruz Cigudosa

Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa
Digitaleko kontseilaria
Nafarroako Gobernu

2018ko ekainaren 21ean, Nafarroako Parlamentuak gure Foru Komunitateko Zientzia eta Teknologiar buruzko Foru Legea onetsi zuen. Lege horrek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana arautzen du besteak beste, I+G+b arloko plangintzarako eta koordinaziorako ezinbesteko tresna baita.

Beraz, jada Nafarroan arlo horretako hainbat plan onetsi izan diren arren, hauxe dugu aipatutako legean xedatutakoa betez egindako eta onetsitako lehenengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana.

Plana itxuratzeko prozesuan eragile ekonomiko eta sozialek parte hartu dute eta bereziki, Nafarroako I+G+b sistema osatzen dutenek (SINAI), ADItech-ek koordinatuta: unibertsitateak, ikerketa zentroak, teknologi zentroak, I+G+b enpresa-unitateak, erakunde bereziak, etab.

Legear jasotakoa aintzat hartuta, Nafarroako I+G+b arloko Aholkularitza Batzordearekin ere kontsultatu da, gai horretan adituak diren hainbat pertsonak parte hartu dutelarik.

Foru Parlamentuaren aginduz egin da plana, baina baita ezagutzak eta berrikuntzak Nafarroaren oparotasunerako duten berebiziko garrantziagatik ere. Izan ere, horiek dira Nafarroako Gobernuaren lanaren zeharkako ardatza, Nafarroa Suspertu 2020-2023 Planean jasotako lehentasunetan ikus daitekeen bezala.

Zientzia- eta teknologia-arloko bikaintasuna lortzeko, berdintasun baldintzak bermatu behar dira proiektuan parte hartzeko orduan, proiektua orientatzeko orduan eta hura garatzeko orduan. Horrez gain, modu orekatuan banatu behar dira proiektuak gizarteari ekarritako aurrerapena eta onura.


Nafarroa eraldatu egin behar da Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin, Europako Itun Berdearekin, Eraldaketa Digitalerako Helburuekin eta berdintasun eta kohesio sozial handiagoez eskatzen dituen gizartearekin gehiago eta hobeto bat egiteko. Eraldaketa hori lortzen lagunduko

du plan honek, Nafarroako gizarteari mesede eginez, eta aurrerapenean, kohesioan eta berrikuntzan oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial berria lortzen lagunduko digu.

2. PLANA ITXURATZEKO PARTE-HARTZE PROZESUA

Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentura atxikita dagoen Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak koordinatu du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana egiteko prozesua, Zientziari eta Teknologiarri buruzko 15/2018 Foru Legearen 31. artikuluan jasotakoa betez. I+G+b arloan eskumena duen departamentua denez, Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak plana egiteko parte-hartze prozesua proposatu zuen, eragile ekonomiko eta sozialek I+G+b arloan nagusi diren eskualde europarren artean kokatzeko orduan izandako beharrianak eta erronkak jasotzeko xedez.

2020. urte amaieran hasi ziren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria egiteko prestaketa-lanak. Orduantxe identifikatu ziren parte-hartze prozesuan zein plangintza egiteko orduan kontuan hartu beharreko taldeak eta erakundeak.



Hiru fase izan ditu plana egiteko prozesuak: testuinguruaren eta hasierako egoeraren analisia, neurrien diseinua eta 2021-2025 NZTBPperako proposamena. Prozesu osoan zehar, bilerak egin dira intereseko taldeekin eta adituekin, kontsulta puntualak egiteko. Gainera, Nafarroako I+G+b arloko Aholkularitza Batzordea eratu eta izendatu zen eta planerako gomendioak egin zituen 2021eko irailaren 21ean egindako lehenengo bileran.

Nafarroako I+G+b arloaren **testuinguruaren eta hasierako egoeraren analisia**n, berrikuntzaren ohiko adierazleak aztertu ziren, adierazle horiek herrialde osoan zein nazioartean (Europar, batez ere) izandako emaitzekin alderatuz. Era berean, arau-esparruak eta SINAIko eragileen

estrategiak eta ahalmena aztertu ziren, zientziaren eta teknologiaren zein I+G+b politiken inguruko prospektiba propioa egiteaz gain. Behin hasierako egoera aztertuta, planaren helburuak planteatu ziren, lortutako informazioa Nafarroako I+G+b Aholkularitza Batzordearekin kontrastatuz. Nafarroako I+G+b sistema (SINA) osatzen duten eragileek hasiera batean izandako egoeraren inguruan egindako ekarpenak jaso ziren fase honetan, baita ADItech-ek koordinatzaile gisa egindakoak ere. SODENaren ekarpenak ere jaso ziren, Nafarroako 2021-2027 Espezializazio Adimendunaren Estrategia (S4) eguneratzeko arduraduna baita.

2021-2025 NZTBPre neurriak diseinatzeko fasean, plan berriari aplikatu zekizkiokeen eta planteatutako helburuak lortzeko indartu eta bultzatu zezaketen neurriak proposatu ziren. Nafarroako I+G+b sistema egikaritzeko eragileei egonkortasuna ekarriko dien finantza-konfigurazioa izatea ahalbidetzen zuten aukera guztiak aztertu ziren, honako hauek aztertzeaz gain: transferentziarako neurri espezifikoak, Nafarroako I+G+b arloaren sustapena, Berrikuntzaren Erosketa Publikoa sustatzeko eta bultzatzeko tresnak, zientziaren eta gizartearen arteko beharrezko lotura sustatzeko neurrien zehaztapena eta Nafarroako Berrikuntza Behatokiaren ezarpena. Horretarako, departamentu-arteko bilerak ere egin ziren, 15/2018 Foru Legearen 31. artikulua kontuan hartuta, departamentu eta erakunde publiko desberdinek beren esparruen baitako ekintzak proposatuko dituztela baitio, gero horiek NZTBPrean txertatzeko.

Neurriak diseinatzeko, Nafarroako S3 gaikako lehentasunen arabera lerrokatutako mahai sektorialen eta SINAlko eragileen lehenengo lan-txandan lortutako informazioa erabili zen. 2021eko ekainean antolatu ziren mahai sektorial horiek. Nafarroako berrikuntza-esparruaren ikuspegi desberdinak zituzten parte-hartzaileak hautatu ziren eta bertaraturako arteko parekotasuna mantendu zen. Hala, bertaratu zirenek bere egoerari eta premia-eremuaren buruzko informazioa eman zuten, NZTBPrean kontuan hartu beharreko I+G+b arloko faktoreak eta palankak aipatzeaz gain.

2021-2025 NZTBPre proposamena izan zen prozesuaren azken fasea. Planaren azken zehaztapenak, testua eta eduki bideratzaileak landu ziren, martxan jartzeko. Era berean, plana ezartzeko, haren jarraipena egiteko eta ebaluatzeko adierazle-sistema, aurrekontuaren gutxi gorabeherako kalkulua, gobernantza-eremuaren definizioa eta Nafarroako Berrikuntza Behatokiaren diseinua ere landu ziren.

Fase honetan departamentu-arteko taldeak parte hartu zuen, neurriak behin betiko zehazteko eta departamentu bakoitzaren eskumen-eremuko ekarpenak egiteko. Mahai sektorialen bigarren lan-txandan egindako ekarpenak ere jaso ziren; izan ere, mahai horietan parte hartu zuten pertsonen mahaietan aurrez aurre parte hartzeko deia egin zitzaion 2021eko irailean. Gainera, kontsulta zehatza egin zitzaion SINAlko eragileei, haien ADItech koordinatzailearen bitartez.


Plana **jendartean erakutsi** ostean bukatzen da plana egiteko prozesua, herritarren ekarpenak jasotzeko. Ostean, Nafarroako **Parlamentuan** aurkeztu behar da, eztabaidatzeko eta onesteko. Hori egin ondoren, webgunearen eta Nafarroako Berrikuntza Behatokiaren bitartez **zabaltu** behar da.

3. LEGE-TESTUINGURUA ETA PLANGINTZA

3.1 AURREKARIAK

HISTORIKOA

2000-2003rako Nafarroako Teknologi Plana onetsi zuen Foru Gobernuak, I+G+b jardunaren bidez Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta enplegua sustatzeko. Oso emaitza onak izan zituen eta ostean, hainbat Teknologi Plan onetsi ziren.



AURREKO PLANA

2017tik 2020ra bitartean gauzatu den azken planak zientzia, teknologia eta berrikuntza barne hartu zituen, espezializazio sektorial eta zientifiko-teknologikorako helburuak aintzat hartuta.

ZIENTZIARI ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO LEGEA

Nafarroako Parlamentuak 15/2018 Foru Legea onetsi zuen (ekainaren 27koa, Zientziari eta Teknologiari buruzkoa), zientziaren, teknologiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren sustapena erabat arautzen duena (1. eranskina).

IV. kapituluan, Nafarroan I+G+b politikak planifikatzeko eta koordinatzeko funtsezko tresna gisa definitzen du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (NZTBP, aurrerantzean).

3.2 NAFARROAKO I+G+b SISTEMA (SINAI)



Zientziari eta Teknologiari buruzko Foru Legeak ikerketa-, transferentzia- balorizazio- eta berrikuntza-lanak egiten dituzten eragile publiko eta pribatuen multzo gisa definitzen du Nafarroako I+G+b sistema (SINAI).

Hainbat eragile mota definitu dira, bakoitzaren funtzioen eta obligazioen arabera, bikaintasuna xede izan dezaten. Hala, Nafarroako gizartearen eta ekoizpen-sarearen erronkei aurre egin ahalko diegu. Hona hemen eragile motak:

- UNIBERTSITATEA: irakaskuntzara eta ikerketara orientatuta daudenak eta ostean ezagutza enpresa-sareari, instituzioei eta gizarteari zabaltzen eta transferitzen dietenak.
- IKERKETA ZENTROA: oinarrizko eta bikaintasuneko ikerketa-erakundea, interes zientifikoko arloetan lan egiten duena.

- TEKNOLOGI ZENTROA: ikerketa-erakundea, funtsean teknologia sortzen, garatzen eta transferitzen diena Nafarroako enpresa-sareari, instituzioei eta gizarteari.
- OSASUN IKERKETARAKO INSTITUTUA: ospitale batean diharduten eta funtzio nagusi gisa ikerketa traslazonala egitea duten ikerketa-erakundeak.
- I+G+b ENPRESA-UNITATEA: batez ere garapen esperimentalean zentratzen den eta bere enpresa titularren I+G+b beharrianak asetzen xede duen ikerketa-erakundea.
- ERAKUNDE BEREZIAK: dibulgazio-erakundea, gizarteari ezagutza zientifikoaren eta I+G+b arloko emaitzen berri ematea xede duena.
- I+G+b ARLOKO EGIKARITZE-ERAGILEEN KOORDINATZAILEA: sistema egikaritzeko eragile guztiak koordinatzeaz eta Nafarroan zientziaren, teknologiaren eta enpresaren arteko lotura dinamizatzeaz arduratzen den eragilea.

3.3 NAFARROAKO TALDE ETA AZPIEGITURA ZIENTIFIKOEN SISTEMA PARTEKATUA - SIESS



Eragileen arteko lankidetzaren politiketan sakontzeko eta baliabideen erabilera eraginkorra egiteko xedez sortu zen [SIESS plataforma](#). Ingeleseko siglak dira eta "talde eta azpiegitura zientifikoaren sistema partekatua" esan nahi du.

1200 talde eta azpiegitura baino gehiago barne hartzen ditu eta askatasun osoz kontsulta daiteke.

3.4 AKREDITATUTAKO SINAI ERAGILEAK

SINAI eragile gisa akreditatuta egon nahi duten eragileek eskaera egin dezakete Nafarroako Gobernuak gaitutako [erregistro](#) baten bidez. Zientziari eta Teknologiari buruzko Legean jasotako baldintzak betetzen direla egiaztatu aurretik, eragileak erregistro horretan inskribatuta eta sailkatuta geratzen dira eta Nafarroako Gobernuaren webguneari bidez kontsulta daitezke: <https://administracionelectronica.navarra.es/RegistroSinai.Internet/RegistroSINAI>

2021eko abenduaren 31n, **akreditatutako 27 eragile** zeuden honako tipologia hauen baitan:

KOORDINATZAILEA

ADITECH FUNDAZIOA



UNIBERTSITATEAK

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA



NAFARROAKO UNIBERTSITATEA



IKERKETA ZENTROAK

MEDIKUNTZA APLIKATUAREN IKERKETA ZENTROA (CIMA)



MIGUEL SERVET FUNDAZIO PUBLIKOA (NAVARRABIOMED)



AGROBIOTEKNOLOGIAKO INSTITUTUA - CSIC (IDAB)



NAFARROAKO OSASUN IKERKETARAKO INSTITUTUA (IDISNA)



TEKNOLOGI ZENTROAK

NAFARROAKO INDUSTRIA ELKARTEA (AIN)



CENER FUNDAZIOA



ELIKAGAIEN TEKNOLOGIAREN ETA SEGURTASUNAREN ZENTROA (CNTA)



NAFARROAKO TEKNOLOGIEN ETA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN AZPIEGITUREN INSTITUTUA (INTIA)



LUREDERRA GARAPEN TEKNOLOGIKO ETA SOZIALERAKO FUNDAZIOA



I+G AUTOMOBILGINTZA ETA MEKATRONIKA FUNDAZIOA (NAITEC)



I+G+b ENPRESA-UNITATEAK

STIRLING ZENTROA (EMBEGA)



GLOBAL AND LOCAL SOLUTIONS (EXKAL)



FLORETTE INNOVA IBÉRICA (FLORETTE)



IED RESEARCH AND TECHNOLOGY (IED ELECTRONICS)



ERAKUNDE BEREZIAK

NAFARROAKO KALTE ZEREBRALAREN ELKARTEA (ADACEN)



NAFARROAKO KLUSTER EOLIKOA (ENERCLUSTER)



NAFARROAKO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KLUSTERRA (NAGRIFOOD)



KULTURARAKO, KIROLERAKO ETA AISIARAKO AZPIEGITUREN NAFARROA (NICDO)



NAFARROAKO INDUSTRIA FUNDAZIOA



ATANA ELKARTEA - NAFARROAKO IKT KLUSTERRA



INPRIMATZE FUNTZIONAL ETA GEHIGARRIAREN KLUSTERRA (FUNCTIONAL PRINT)



NAFARROAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN KLUSTERRA (CLAVNA)



NAFARROAKO NEKAZARI ETA ABELTZAINEN ELKARTEA (UAGN)



NAFARROAKO OSTALARITZA ETA TURISMO ENPRESA ELKARTE BERRITZAILEA (AEI-HOTURNA)



3.5 NAFARROAKO ARAU-ESPARRUEKIN ETA PLANGINTZAREKIN LERROKATZEA

Nafarroako ZTBP Nafarroako arau-esparruarekiko eta plangintzarekiko koherentea da, jarraian haietako bakoitzerako modu eskematikoan adierazi duen legez:



[15/2018 Foru Legeak, ekainaren 27koak, Zientziari eta Teknologiari buruzkoak](#), plana bera definitzen du IV. kapituluan eta guztiz bat dator honako hauekin:

- Helburu eta printzipio gidari zein informatzaileak betetzea.
- Nafarroako I+G+b sistema (SINAI), Nafarroako I+G+b arloko Aholkularitza Batzordea eta Nafarroako Berrikuntza Behatokia hobetu eta bultzatzea.
- Ikerketa zientifiko eta teknikoa, berrikuntza, ezagutzaren transferentzia eta kultura zientifiko, teknologiko eta berritzailearen hedapena bultzatzea.



[17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzkoa](#), honako hauekin bat datorrena:

- Nafarroako I+G+b sistemaren (SINAI) esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.
- Genero ikuspegia zientzian, teknologian eta berrikuntzan txertatzea, zeharkako kategoria gisa.



[S4 Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategia 2021-27](#). Definizioz, NZTBP honako hauen ildo beretik doa:

- Nafarroa mailan inplikaturik dauden eragileak.
- Enpresen eta SINAIko eragileen I+G+b adierazleak eta helburuak.
- Nafarroarako lehentasuna duten teknologiarako.



[Nafarroaren 2030 Agenda](#) honako helburu hauekin lerrokatuta dago:

- Industria, berrikuntza eta azpiegitura I+G arloko gastua hobetzeko, I+G arloko enpleguan, manufaktura-industrian, goi-mailako eta maila ertaineko teknologia-zerbitzuetan eta EPO patenteen eskaera kopurua areagotzea.

- Genero-berdintasuna, I+G sektoreetan lanean diharduten emakumeen ehunekoak hobetzeko, genero-berdintasunaren indizea eta lan-arloko genero-arrakala.
- Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea I+G+b arlorako, energiaren produktibitatea eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko.

3.6 NAFARROA SUSPERTZEKO PLANGINTZA-ESPARRUEKIN LERROKATZEA

Nafarroako ZBTP bat dator Nafarroa suspertzeko plangintza-esparruekin, jarraian haietako bakoitzerako modu eskematikoan adierazi duen legez:



[Nafarroa Susperitu Plana 2020-2023](#) honako hauen ildo beretik doa:

- Holako hau dio du P4 lehenetasunak: “Nafarroak Europar Batasunean I+G arloan duen posizioa hobetzea”. 7 neurri zehatzetan banatzen da (M16-M23).
- I+G arloaren zeharkako eragina duten lehenetasun guztiak.



[Next Generation- Nafarroako Estrategia Digitala 2030](#) bat dator honako helburu eta eremuekin:

- STEM bokazioak sustatzea, batez ere neskatilen artean.
- Enpresa teknologikoak erakartzea, IKT sektorea indartzea eta Digital Innovation Hub direlakoak sortzea.
- NAI (Nafarroako Adimen Artifiziala) plataformaren bilakaera.



[Next Generation- Nafarroa/Nafarroa Green](#) bat dator honako proiektu eta eremu hauekin:

- Ekonomia zirkularraren arloan modu berritzailean jardutea eta lankidetzan publiko-privaturako proiektuak egitea.
- Eraikuntza eta efizientzia energetikoa: Eraikuntzaren Industrializazio eta Robotika Zentro Nazionala eta CENER Bioerregai Aurreratuen Laborategia sortzea.



[Next Generation- Nafarroako Lurralde eta Gizarte Kohesioaren Estrategia](#) bat dator I+G+b arloko eduki asko duten eta berrikuntza sozialean oinarrituta dauden proiektuekin:

- Iraupen luzeko zaintza-arloko berrikuntza eta Navarra Rural Social Innovation Lab.
- Nafarroako Kulturaren Espazio Teknikoa (ETCN).

3.7 ESTATUKO ARAU-ESPARRUEKIN ETA PLANGINTZAREKIN LERROKATZEA

NZTBPK Espainia mailako araudi-esparrua eta plangintza osatzen ditu. Jarraian modu eskematikoan zehaztu den bezala osatzen du horietako bakoitza:



[Espainiaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Estrategia 2021-2027](#) : estatu mailako I+G+b estrategia eta planak konfiguratzeko, baita horiek autonomia erkidegoen planekin koordinatzeko mekanismoak ere.




[Zientziarako eta Berrikuntzarako Talka Plana](#): epe ertain eta luzerako neurriak planteatzen ditu, talentua erakartzeko, ikerketa eta berrikuntza tresna-berriak bultzatzeko eta bikaintasun zentro berriak sortzeko.



2021eko ekaineko [Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana](#). Planak 10 palanka eta 30 osagai ditu. Ia 70.000 milioi euroko aurrekontua dauka. Aurrekontuaren % 39,7 trantsizio ekologikoa bultzatzeko izango da eta % 28,2 eraldaketa digitala bultzatzeko.



[Ikerketa Zientifiko eta Teknikorako eta Berrikuntzarako Estatuko Plana](#): berritasun gisa, Espainiako Gobernuak eta autonomia erkidegoek plan osagarriak diseinatzea planteatzen du, koordinaziorako eta baterako gobernanzarako tresna berri gisa, interes estrategikoa duten arloen inguruan urte anitzeko ikerketa eta berrikuntza programak egiteko.



[Zientziari, Teknologiarri eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen aldaketa](#): ibilbide profesionala eraberritzeko proposamenak biltzen ditu, baita ezagutzaren transferentziarako aldaketak eta ikerketa-lanaren emaitzak ere, SINAIko eragileei eragin diezaiekeelarik.

3.8 EUROPAKO ARAU-ESPARRUEKIN ETA PLANGINTZAREKIN LERROKATZEA

NZTBP bat dator HORIZON EUROPE plan berriarekin eta SINAiko eragileen eta enpresen presentzia areagotu nahi du argitaratuz doazen deialdietan.



Long-term budget 2021-2027

The long-term EU budget will continue to play a key role to support the recovery and make sure traditional beneficiaries of EU funds receive the sufficient means to continue their work during very challenging times for all.

MFF 2021-2027 total allocations per heading

	MFF	NEXT GENERATION EU	TOTAL
1. Single Market, Innovation and Digital	132.0	106	238.0
2. Cohesion, Resilience and Values	377.9	721.9	1 099.7
3. Natural Resources and Environment	356.4	175	531.4
4. Migration and Border Management	22.7	-	22.7
5. Security and Defence	13.2	-	13.2
6. Neighbourhood and the World	98.4	-	98.4
7. European Public Administration	75.1	-	75.1
TOTAL MFF	1 074.5	750	1 824.5

2021-2027 Urte Anitzeko Finantza Esparrua, SINAiko eragileek programa europarretan duten presentzia areagotzeko esanguratsua dena.




[Plan Estrategikoa 2021-2024 Horizon Europe.](#) Urte anitzeko finantza esparruaren baitako programa hau I+G+b arloa babesteko oinarrizko tresna da eta esanguratsua ere bada, SINAiko eragileen, herri administrazioaren eta enpresen parte-hartzearen bidez ezagutza eta bikaintasuna areagotzeko.

4. DIAGNOSTIKOA

4.1 I+G+b ADIERAZLE OROKORRAK

I+G/BPGd GASTUA NAFARROAN. ESTATU MAILAKO ETA NAZIOARTEKO KONPARAKETA. BILAKAERA HISTORIKOA




Azken hamarkadan, Nafarroak posizioak galdu ditu Europako batez bestekoaren eta buruan diren herrialdeen aldean.

Zientziari eta Teknologiari buruzko Legeak honako helburu hau ezartzen du: 2030. urterako I+G arloko inbertsioa Nafarroaren BPGD-ren % 3koa izatea. Horrenbestez, urte horretarako ia bikoiztu egin beharko da gaur egun I+G/BPGd arloan egiten den gastua eta azken 9 urteetako joera apurtu beharko litzateke.


REGIONAL INNOVATION SCOREBOARD (RIS)

2021eko Regional Innovation Scoreboard-en arabera, Europako Batzordeak egindakoa, aztertutako 21 adierazleen artetik, Nafarroa Europako batez bestekoaren azpitik zegoen ETEetako berrikuntzarekin zerikusia duten adierazleetan, beste adierazle batzuetan emaitza positiboak zituen arren.



Iturria: Institución Futurok egina, Europako Batzordeak 2021erako egindako Regional Innovation Scoreboard-en (RIS) datuetatik abiatuz

I+G ARLOKO GASTUA EGIKARITZE-SEKTOREAREN ARABERA (HERRI ADMINISTRAZIOA, ENPRESAK, GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA)



Azken hamarkadan aldaketarik gabe mantendu da I+G arloko gastua, 20017-2018an zertxobait igo bazen ere.

I+G arloaren bi heren egikaritzen ditu sektore pribatuak; goi-mailako irakaskuntzak eta herri administrazioek, berriz, heren bat.

Nafarroako sektore pribatuak I+G arloan duen garrantzi handia bat dator Europak ezarritako helburuarekin, hots, I+G arloko gastuaren bi heren esparru pribatuak egitea eta heren bat publikoak egitea.

I+G ARLOKO LANGILEAK NAFARROAN




I+G arloko langile gehienak enpresetan daude, enpresa-sektoreak pisu handia baitu Nafarroako I+G arloko gastu osoan.



(*) Nafarroako I+G arloko langileei buruzko adierazleen kasuan izan ezik, kapitulu honetan aurkeztutako gainerako adierazleak (argitalpen zientifikoak, patenteak, etab.) ez dira sexuaren arabera bereizita ageri kontsultatu diren iturri ofizialetan.

2019. urtean eta aurreko urteetan, oreka handiagoa egon zen I+G arloan lan egiten duen gizon eta emakume kopuruaren artean, goi-mailako irakaskuntzaren eta herri administrazioaren kasuan; enpresetako I+G arloko langileen artean, berriz, sexuaren araberako desoreka handiagoa zegoen (*).


ENPRESETAN I+G ARLOAN DIHARDUTEN LANGILEEN EHUNEKOA (I+G ARLOAN DIHARDUEN LANGILE KOPURU OSOAREN ALDEAN) NAFARROAREN, ESPAINIAREN ETA EUROPAR BATASUNEN HERRIALDEEN ARTEKO KONPARAKETA




2018ko datuak. Iturria: Eurostat, EECTI.

Ehunekoei dagokienez, Nafarroako enpresa-sektoreak I+G arloan duen langile kopurua (Nafarroako I+G arloko langile kopuru osoaren % 54,5) Espainiako batez besteko kopurua baino handiagoa, Europar Batasuneko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa eta teknologia-arloan aurreratuta doazen herrialde europar batzuetan baino txikiagoa da.

ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK



S4rako egindako diagnostikoan, Nafarroa ondo kokatuta dago Web of Science (WoS) zerbitzuan milioi bat biztanleko dituen argitalpen indexatuetan. Gainerako eskualde europarren aldean, Nafarroak posizio ona du (% 20 hobea) adierazle horretan. Posizio ertain edo altua du antzeko egoeran dauden gainerako eskualdeen aldean eta Espainiako autonomia erkidegoen rankingean bigarren postuan dago.



Gainera, oso posizio ona du eragin handieneko argitalpenen (1. kuartilekoak) ehunekoak neurtzen duen adierazlean.

NAFARROAK ESTATU MAILAKO, EUROPA MAILAKO ETA NAZIOARTEKO PATENTEETARAKO EGINDAKO ESKAERAK (PCT)

Termino erlatiboetan (eskaera kopuruaren ratioa, milioi bat biztanleko), Espainiako autonomia erkidegoen buruan da Nafarroa, **patente nazionalen** eskaerei erreparatuz gero. Hala ere, azken urteotan eskaera kopuruak behera egin du. 2017an 90 eskaera egin ziren milioi bat biztanleko, 2018an 59 eta 2019an 55.

Patente eta Marken Espainiako Bulegoan Nafarroako erakundeek aurkeztutako Europako Patenteen eskaerak

Autonomia Erkidegoa	Eskatzaila mota	2017	2018	2019
NAFARROA	CSIC			
NAFARROA	Enpresak	13	25	49
NAFARROA	Erakunde publikoak	6		
NAFARROA	Partikularrak - Gizonak	1	1	1
NAFARROA	Partikularrak - Emakumeak			
NAFARROA	Unibertsitateak			
GUZTIRA		20	26	50

Europako Patenteen eskaerak milioi bat biztanleko: 31,09 (2017), 40,15 (2018) eta 76,42 (2019).

Patente eta Marken Espainiako Bulegoan Nafarroako erakundeek aurkeztutako PCT Patenteen eskaerak

Autonomia Erkidegoa	Eskatzaila mota	2017	2018	2019
NAFARROA	CSIC			
NAFARROA	Enpresak	23	19	17
NAFARROA	Erakunde publikoak			4
NAFARROA	Partikularrak - Gizonak	7	4	5
NAFARROA	Partikularrak - Emakumeak	3	1	
NAFARROA	Unibertsitateak	1	1	
GUZTIRA		20	26	50

PCT Patenteen eskaerak milioi bat biztanleko: 52,85 (2017), 38,60 (2018) eta 39,74 (2019).

Iturria: OEPM (Patente eta Marken Espainiako Bulegoa) /Nafarroako Gobernu

2019an izan ezik, Nafarroako erakundeek aurkeztutako patente europarren eta PCT (nazioarteko patenteen lankidetzarako ituna) patenteen eskaeren ratioa estatu mailako eskaeren ratioa baino baxuagoa izan da. Espainiako gainerako autonomia erkidegoetan bezalaxe, Nafarroa teknologikoki aurreratuenak diren ELGAko herrialdeen eskaera ratioaren azpitik dago, Europako zein nazioarteko patenteen eskaera kopuruari dagokionez.

NAFARROAKO ENPRESEN TAMAINA

Enpresa-kopurua soldatapeko langile-tarteen arabera, guztizkoaren gaineko ehunekoa, urte arteko aldakuntza-tasak eta soldatapekoen ehunekoa guztizkoaren gainean. 2020ko urtarrilaren 1ean


Soldatapekoak	Enpresa-kopurua	Guztizkoaren %	Urte arteko tasa	Soldatapekoen %, guztizkoaren aldean
Bat ere ez	20.910	55,8	3,3	0,0
1etik 2ra	9.399	25,1	-4,7	7,7
3tik 5era	3.179	8,5	-2,6	7,8
6tik 9ra	1.452	3,9	-6,2	6,9
10etik 19ra	1.270	3,4	-1,2	11,3
20tik 49ra	817	2,2	1,2	16,1
50etik 99ra	249	0,7	8,3	11,7
100etik 249ra	145	0,4	-7,1	14,2
249 baino gehiago	62	0,2	5,1	24,2
GUZTIRA	37.483	100,0	0,1	100,0

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NASTAT).

Nafarroako enpresak txikiak dira: 34.940 mikroenpresa (10 langiletik behera dituztenak), 2.087 enpresa txiki (10 eta 49 langile bitartean dituztenak), 394 enpresa ertain (50 eta 249 langile bitartean dituztenak) eta 62 enpresa handi (249 langiletik gora dituztenak) ditu. Faktore horrek baldintzatu egiten du Nafarroako enpresa-sare osoak I+G+b arloan egin dezakeen inbertsioa.

4.2 NAFARROAREN ETA I+G ARLOAN AURRERATUTA DOAZEN ESKUALDE EUROPARREN ARTEKO KONPARAKETA

I+G/BPG ESPARRUAN AURRERATUENAK DIREN EUOPAR BATASUNEN 30 ESKUALDEAK ETA NAFARROA



Iturria: "Science, Research and Innovation Performance of the EU 2020". Ikerketarako Zuzendaritza Nagusia. Europako Batzordea, Eurostat.


Epe laburrera, baliteke eskualde horiekiko aldea murriztu ezin izatea. Hala ere, epe ertain eta luzera jarraitu beharreko bidea markatzen du, Nafarroako I+G+b sistemak mundu mailan izan beharreko lehiakortasuna bermatzeko.

“EU Regional Innovation Scoreboard” delakoaren arabera, Nafarroa Berritzaile Moderatua izan zen 2019an. 2021ean Moderatua+ gisa sailkatu zen baina Moderatu Sendoa + izatea da helburua.

Hurrengo orrialdeetan Nafarroaren eta I+G/BPGd esparruan aurreratuenak diren Europar Batasuneko 30 eskualdeen arteko konparazio-datuak ageri dira, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren kasurako.

Hurrengo tauletan ageri diren datuak 0tik 1era bitarteko adierazle normalizatuaren arabera sailkatu dira (adierazlerik baxuena duen eskualdea eta adierazlerik altuena duena, hurrenez hurren), “EU Regional Innovation Scoreboard” delakoan erabilitako adierazle-metodoa oinarri hartuta, 240 eskualde europarretarako.

INTERNATIONAL SCIENTIFIC CO-PUBLICATIONS - NAZIOARTEAN EGINDAKO BATERAKO ARGITALPEN ZIENTIFIKOAK




Source: Regional Innovation Scoreboard 2019

Nafarroan egindako nazioarteko argitalpen zientifikoaren egiletza partekatua gainerako eskualde europarren batez bestekoa baino handiagoa da (0,50etik gora, eskualde europar guztietarako den 0tik 1era bitarteko adierazle normalizatuaren). Hala ere, Europako eskualde aurreratuenen atzetik dago.

Beraz, nazioarteko lankidetzak zientifiko handiagoa lortu behar da.


MOST CITED PUBLICATIONS - ARGITALPEN ZIENTIFIKO AIPATUENAK



Source: Regional Innovation Scoreboard 2019

Mundu mailan aipatuak izan diren % 10 argitalpen zientifikoek kasuak, eskualde europarren batez bestekoaren azpitik dago Nafarroa (0,50etik behera, eskualde europar guztientzako den 0tik 1era bitarteko adierazle normalizatua). Hobetzeko marjina du eskualde europar aurreratuenen aldean.


NON-R&D INNOVATION EXPENDITURES - ENPRESEK I+G ARLOAZ KANPOKO BERRIKUNTZAN EGINDAKO GASTUA



Source: Regional Innovation Scoreboard 2019

Nafarroako ETEek jarduera berrizailletarako ekipamendu eta makineria berria erosteko, lizentziak eskuratzeko, patenteak erosteko eta abarrerako egindako inbertsioa, haien fakturazioaren aldean, oso baxua da.

PCT PATENT APPLICATIONS - NAZIOARTEKO PCT PATENTEEN ESKAERAK



Source: Regional Innovation Scoreboard 2019

Nafarroako enpresen berrikuntza-ehunekoa altua da, edo nazioartean patentatu ezin diren produktuetan berritzaileak izateko saiakerak gero eta gehiago dira (ez gara berrikuntza erradikalez ari), edo normalean patentatzen ez diren prozesuetan berritzaileak izateko saiakerak dira edo Nafarroako enpresa gutxiak planteatzen dute nazioarteko merkatuetan produktu berritzaileak txertatzea.

4.3 NAFARROAKO I+G+b SISTEMAKO ERAGILEAK

SINAI-KO ERAGILEEN ADIERAZLE KUANTITATIBOAK LABURBILTZEN DITUEN TAULA

SINAIKO ERAGILEAREN KATEGORIA	Ikertzaile masa (LOBn adierazita)	Emaitzak					
		Argit. zient. kop. (1. kuartila)	Argit. zient. kop. (gainerakoak)	Diru-sarrerak dituzten patenteen kop.	Patente kop. (gainerakoak)	Transferitutako iker. kop.	Spin-off kopurua
Unibertsitatea	1.333	1.092	1.525	14	25	0	3
Ikerketa zentroa	383	295	350	3	9	1	0
Teknologia zentroa	345	16	36	2	46	18,2	0
Erakunde berezia	0	0	0	0	0	1	0
IdiSNA	571	757	444	0	0	0	0
Enpresako IGB unitatea (EIU)	5	0	0	0	1	0	0
Koordinatzailea	10						
GUZTIRA	2.647	2.160	2.355	19	81	20	3

Oharra: Enpresen I+G+b unitateen datuak interpretatzeko, kontuan izan beharra dago enpresen I+G+b unitateen akreditazioa 2021ean egin zela, unitate gehienak sortu berriak zirela eta inkestan ageri diren datuak 2020ko ekitaldikoak direla.

Taula honetan ageri dira SINAiko eragileen adierazle kuantitatibo batzuk eta zera ikus dezakegu:

- SINAiko eragileen ikerketa-masak eragile gutxi batzuk barne hartzen ditu: unibertsitateak, ikerketa zentroak eta teknologi zentroak.
- IdisNAk (Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutua) aurreko eragileen datuetan jasota ageri diren zenbait datu ditu.
- Bi unibertsitateetan dago SINAiko eragileen ikerketa-masaren % 60 baino gehiago.
- SINAiko eragileen ikerketaren emaitzak ez dira oso homogeenak eragile kategoriaren arabera banatuz gero eta beraz, eragile bakoitzaren gaitasunekin bat datozen output helburuak ezartzen joateko interesa agertu behar da.

SINAI-KO ERAGILEAK NAFARROAKO ESPEZIALIZAZIO ADIMENDUNAREN LEHENTASUNEKIN DUTEN LERROKADURA LABURTZEN DUEN TAULA

SINAIKO ERAGILEAREN KATEGORIA	Automobilgintza		Energia berriztagarria		Osasuna		Nekazaritzako elikagaiak		Turismoa		Is-entzuzuek		Digitalizazioa		Trants. ekologiko	
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
Unibertsitatea	UPNA	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	UNAV	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Ikerketa zentroa	CSIC IDAB															
	FIMA															
	FPMS															
Teknologia zentroa	AIN	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	CNTA															
	CENER		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	NAITEC	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	INTIA				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	LUREDERRA	X			X	X										
Erakunde berezia	ATANA													X	X	X
	NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN CLUSTERRA													X	X	X
	ENERCLUSTER				X	X	X	X						X	X	X
	FUNCTIONAL PRINT CLUSTERRA	X		X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	ADACEN				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
	INDUSTRIAL NAVARRA FUNDAZIOA			X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Osasun ikerketa institutua	IdiSNA					X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Enpresako IGB unitatea (EIU)	STIRLING ZENTROA					X								X	X	X
	FLORETTE INNOVA IBERICA							X	X	X	X	X	X	X	X	X
	GLOBAL AND LOCAL SOLUTIONS				X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
Koordinatzailea	ADITECH	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X


Datuak: 2020 urtea, guk egindakoak

Aurreko datuak ikusita, honako balorazio orokorrak egin ditzakegu SINAIren egungo egoeraren inguruan:

- Unibertsitateak nolabait dispersatuta daude landutako I+G+b gaitetan eta beraz, interesgarria litzateke esparru estrategikoetan egin beharreko esfortzua bateratzen lagun dezaketen ikerketa zentroak zein egiturak sustatu eta indartzea.
- Teknologi zentroyen espezializazio-esparruak gainjarrita daude nolabait. Beraz, horien espezializazio estrategiak hobeto koordinatzea komeni da, eraginkortasuna hobetzeko.
- Oro har, eragileen espezializazio esparruak eta espezializazio adimendunaren estrategian jasotako lehentasunak bat datozela esan genezake, turismoaren arloan izan ezik, arlo horretan ez baitago espezializazio espezifikorik SINAiko eragileen artean.
- Eragile batzuen kasuan, ikerketa-masaren dimentsioa ez dator bat espezializazio-eremu kopuruarekin. Beraz, ikertzaile-masa kritikoa oso txikia da eremu bakoitzean.

4.4 BERRIKUNTZA NAFARROAKO ENPRESETAN


ENPRESA BERRITZAILEEN BANAKETA, TAMAINAREN ARABERA




Jarduera berritzaileetan ari diren enpresen ehunekoa hiru aldiz handiagoa da enpresa handien kasuan (250 langiletik gora dituztenak), ETEekin alderatuta (250 langiletik behera dituztenak).

Nafarroako enpresa-sarea ETEek osatzen dute nagusiki eta horien artetik % 20 baino ez dabil jarduera berritzaileetan.

LANKIDETZA BERRIKUNTZA-LANEAN






Jarduera berritzaileetarako kanpoko eragileekin lankidetzan aritzen den enpresa kopuru txikiaren baitan (enpresa berritzaileen % 6,7 dira), gehienak beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzen dira, heren bat unibertsitateekin eta bosten bat ikerketa zentroekin.

Horrenbestez, enpresen eta SINAlko eragileen arteko lankidetzak areagotu beharra dago.

JARDUERA BERRITZAILEETAN EGINDAKO GASTU-PORTZENTAJEAREN BANAKETA



Kanpoko I+G eskuratu edo erosteko egindako gastuak enpresek jarduera berritzaileetan egindako gastu osoaren oso ehuneko txikia dira.

5. ESTRATEGIA ETA HELBURUAK

2021-2025 NZTBPre DEKALOGOA

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak bete beharreko helburu hauek ageri dira Zientziari eta Teknologiari buruzko Foru Legean:

- a) Zientziari eta Teknologiari buruzko Foru Legea garatzea.
- b) SINAko eragileen bikaintasuna areagotzea.
- c) Enpresak eta SINAko eragileak etorkizunera begira jartzea, erronkei aurre egiteko.
- d) Genero ikuspegia txertatzea.
- e) Bokazio zientifiko eta teknologikoen foru plana.
- f) Administrazioan Berrikuntzaren Erosketa Publikoa bultzatzea, tresna dinamizatzailer gisa.

Helburu horiek 2021-2025 NZTBP estrategia definitzeko ardatza izan dira eta jarraian ageri diren 10 helburu handiekin osatutako dekalogoan islatu dira. Hona hemen lortu nahi den helburu estrategikoa: Nafarroa I+G+b arloan Europa mailako erreferente bihurtzea, zientzia, industria, gizarte eta administrazioa batuz.



Hona hemen plan honen oinarrian diren eta Nafarroako Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendarekin bat datozen 10 helburu handiak:

1. NAFARROAKO GOBERNUAREN KONPROMISOA BALIABIDEEN ALDETIK

Legeak argi eta garbi definitzen ditu 2025ean eta 2030ean bete beharreko helburuak, Nafarroako Gobernuak I+G+b arloari eskainitako baliabideen bilakaeran. Mandatu horrekin batera, 2021-2025 NZTBPre lehenengo helburua da aurrekontuetan urtero txertatzea Legean konprometitutako partida hauek.

	Foru Legearen Helburuak		Datu errealak	NZTBPre helburuak				
	2020	2025		2020	2021	2022	2023	2024
Unibertsitateen % NAOen gainean	1,5	1,5	1,88	2,00	2,00	2,00	2,00	2,00
I+G+b-ren sustapenaren % NAOen gainean	1,35	1,60	1,45	1,58	1,60	1,65	1,7	1,75
Deskontu fiskalaren % NAOen gainean	1,00	1,00	0,71	0,77	0,83	0,88	0,94	1,00
Nafarroako I+G+b-rako Ebko eta Estatuko ekarpenen % NAOen gainean	0,40	0,40	1,96	1,96	1,96	1,96	1,96	1,96
Unibertsitateen, I+G+b sustapenaren, zerga-deskontuaren eta Estatuko/EBko ekarpenen batura, guztira NAOen gainean	4,25	4,50	6,00	6,31	6,39	6,49	6,60	6,71
Sustapenaren + Unibertsitateen + Deskontu fiskalen %aren estimazioa Nafarroako BPGren gainean	0,85	0,90	0,73	0,76	0,80	0,83	0,87	0,90

9. kapituluaren ageri da helburu hori ("Aurrekontua").

2. AHOLKULARITZA BATZORDEA

Nafarroako I+G+b Aholkularitza Batzardea kide anitzeko organoa da, anitza eta paritarioa. 21 pertsonak osatzen dute, bikaintasunez betea eta nazioartean esanguratsua den ibilbide profesionala dutenak, Nafarroan zein Nafarroatik kanpo lan egiten dutelarik. Balio-kate osoan dihardute, ikerketa akademikotik hasi eta ekonomian eta gizartean eragiteraino.

Hona hemen pertsona horien funtzioak, Zientziari eta Teknologiari buruzko Foru Legearen arabera:

- Gomendioak ematea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana egiteko edo berrikusteko prozesuan kontuan har ditzan.
- Nafarroako I+G+b arloko sistema (SINAI) osatzen duten eragileei gomendioak ematea, helburuak hobeto bete ditzaten.
- Nafarroako I+G+b arloan jarduteko eta hura dinamizatzeko proposamenak egitea.
- Foru Lege honetan jasota dauden eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldekoak diren neurriak betetzen direla bermatzea, baita administrazioari eta Nafarroako I+G+b sistema (SINAI) osatzen duten eragileei horretarako gomendioak ematea ere.

Uztailaren 22ko 65E/2021 Foru Aginduaren bidez izendatu ziren Batzordea osatzen duten pertsonak eta 2021eko irailaren 21ean egin zen lehenengo bilera. Hala, NZTBP egiteko prozesurako ekarpenak egin zituzten.



7. kapituluaren ageri da helburu hori (“Gobernantza”).

3. NAFARROAKO BERRIKUNTZA BEHATOKIA

Planean aurreikusitakoaren arabera, Nafarroako Berrikuntza Behatokia 2021ean definituko da, 2022an martxan jarriko da eta 2022-2025 tartean mantenduko da.

Hona hemen Zientziari eta Teknologiarri buruzko Foru Legearen behatokiaren inguruan ageri den edukia:

- Momentuko albiste zientifiko-teknologikoak.
- Etorkizuneko joera eta beharizan zientifiko-teknologikoak.
- Nafarroako I+G+b sistema (SINAI) osatzen duten eragileen jardura eta gaitasun zientifiko-teknologikoak.
- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak finantzatutako I+G+b proiektuen laburpena.
- Genero berdintasunaren inguruko albisteak zientziak, teknologian eta berrikuntzan.
- Nafarroako Foru Komunitateko I+G+b arloari buruzko informazio ekonomikoa.

Gobernuko beste departamentu batzuekin adostutako edukiak gehituko zaizkio eduki horri, hala nola:

- S4 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren Adierazleen jarraipena.
- Berrikuntza ez teknologikoa.
- Diplomazia eta aholkularitza zientifikoa jardun legegilean eta Nafarroako Gobernuaren jarduketak.

8.kapituluan jasota dago helburu hori (“Aginte-koadroa eta Behatokia”).

4. I+G+b ARLOAREN BALIO-KATEA BULTZATZEA

Planak bultzada emango dio I+G+b arloaren balio-kate osoari, lau ardatzetan banatutako neurrien bidez:

- **A1. Ezagutza sortzea**, talentua erakartzeko, mantentzeko eta nazioartean proiektatzeko neurriekin. Horrez gain, Nafarroako I+G+b sistema (SINA) osatzen duten eragileen bikaintasun zientifiko-teknikoa lortu nahi da.
- **A2. Lankidetzan aritzea eta ezagutza transferitzea**, enpresa-sareak eta SINAko eragileek lankidetzan aritzeko dituzten oztopoak murrizteko, baita beste eskualde batzuekin baterako garapenak dinamizatzeko oztopoak murrizteko ere.
- **A3. Enpresen I+G+b sustatzea**, Nafarroako enpresa-sarearen jardun berritzailea areagotzeko neurrien bidez, ETEetan eta enpresa handien efektu gidarian zentratuz.
- **A4. Oinarri teknologikoa duten enpresa berriak bultzatzea** (OTEBak), eskualdean horrelako enpresak sortu eta sendotzeko.

Ardatz horiek gauzatzeko, **kultura zientifiko, teknologiko eta berritzailea zabaltzeko neurriak** hartuko dira, herritarrek prozesu berritzailean gehiago inplikatzeko, STEM titulazioak sustatzeko eta genero-arrakala murrizteko.



6. kapituluan jasota dago helburu hori (“Programak eta neurriak”), planteatutako eremu eta erronka guztietan.

5. ESTATU MAILAKO ETA EUROPAKO PROGRAMEN ITZULKINA

Guztira, 2017 eta 2020 bitartean, Nafarroako 164 erakundek eta beren menpeko erakundeek jaso zituzten Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren diru-laguntzak edo maileguak. Hala, emandako laguntza baliokidea, guztira, 82,5 milioi eurokoa izan zen. SINAko erakundeak daude rankingaren lehenengo postuetan, enpresa handiekin batera.

Hona hemen planaren bitartez programa nazionaletan lortu nahi diren helburuak:

- 200 erakunde onuradun Nafarroan.
- 100 milioi euroko itzulkina laguntza baliokidean.
- % 20ko hazkundera SINAlko eragileen itzulkinean.

Programa europarren kasuan, guztira Nafarroako 46 erakundek jaso dituzte Horizon 2020ko diru-laguntzak. Hala, Espainiaren itzulkinaren % 2,3 lortu da (2019ko BPGD-n izandako pisuaren % 1,6ren aldean).

Hona hemen planaren bitartez programa europarretan lortu nahi diren helburuak:

- 50 erakunde onuradun Nafarroan.
- Espainiaren itzulkinaren % 2,5.
- % 10eko hazkundera SINAlko eragileen itzulkinean.


6. kapituluan jasota dago helburu hori (“Programak eta neurriak”), talentua nazioartean proiektatzeko eta jardun berritzailea eta lankidetzaren areagotzeko erronketan.

6. PLANAREN ETA S4 ESTRATEGIAREN LERROKADURA

2021-2025 NZTBPren tresna guztiak (bereziki, SINAlko eragileen Finantzaketa-esparru Egonkorrean jasotako adierazleak) eta Nafarroako Berrikuntza Behatokia guztiz bat etorriko dira **Nafarroa Susperitu Planarekin**, **Nafarroako S4 Estrategiarekin** eta haietan jasotako gaikako lehenetsunekin, **Nafarroako Gobernuak eraldaketa digitalerako**, **erlaldaketa iraunkorrerako** eta **gizarte-kohesiorako** dituen estrategiekin bereziki.



2021-2027 Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategian (S4) gaika identifikatutako lehentasunak



3. kapituluaren ageri da helburu hau (“Lege-testuingurua eta plangintza”).

7. EMAITZEN ESKAERA: ZIENTZIA, ENPRESA ETA GIZARTEA

Baliabide kopuruaren hazkunde objektiboarekin batera, SINAiko eragileek 2017-2020an lortutako emaitzak batez bestean % 15 areagotzea proposatu da:

SINAIKO ERAGILEAREN KATEGORIA	Ikertzaile masa (LOBn adierazita)	Emaitzak					
		Argit. zient. kop. (1. kuartila)	Argit. zient. kop. (gainerakoak)	Diru-sarrerak dituzten patenteen kop.	Patente kop. (gainerakoak)	Transferitutako iker. kop.	Spin-off kopurua
Unibertsitatea	1.333	1.092	1.525	14	25	0	3
Ikerketa zentroa	383	295	350	3	9	1	0
Teknologia zentroa	345	16	36	2	46	18,2	0
Erakunde berezia	0	0	0	0	0	1	0
IdiSNA	571	757	444	0	0	0	0
Enpresako IGB unitatea (EIU)	5	0	0	0	1	0	0
Koordinatzailea	10						
GUZTIRA	2.647	2.160	2.355	19	81	20	3


Oharra: Enpresen I+G+b unitateen datuak interpretatzeko, kontuan izan beharra dago enpresen I+G+b unitateen akreditazioa 2021ean egin zela, unitate gehienak sortu berriak zirela eta inkestan ageri diren datuak 2020ko ekitaldikoak direla.

6. kapituluaren ageri da helburu hau (“Programak eta neurriak”), SINAIko eragileen I+G arloko bikaintasun zientifiko-teknikoari buruzko erronkan.

8. BERDINTASUNA

Aurrera egingo da berdintasuna sustatuz I+G+b arloko balio-katearekin lotutako eremu guztietan eta prozesu guztietan; berdintasun-irizpide horiek plana bera egiteko fasean zehar hartu dira kontuan. 2021-2025erako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean, esfortzuak bideratuko dira berdintasun-baldintzak indartzera planaren alderdi guztietan: sarbidea, tratua, parte-hartzea, edukiak, prozesuak, proiektuak, erregistroak eta estatistikak. Zehazki:

- Betetze-kontrolak burutu behar dituzten laguntza publikoetan eta kontratazioan genero-irizpideak txertatuz eta berdintasun-klausulen eraginkortasuna berrikusteko mekanismoak ezarriz.
- Emakumezkoen eta gizonezkoen parte-hartze orekatuaren bultzadarekin jarraituz I+G+b arloko sektore eta maila guztietan, baita parekotasuna sustatuz ere kide anitzeko organoetan zein erabakitze-organoetan.
- Genero-dimentsioa txertatuz ikerketan, arazoaren definiziotik eta literaturaren berrikuspenetik datuen bilketa eta interpretaziora, ondorioetara, aplikazioetara eta geroko garapen teknologikora.
- Sexu-aldagaia txertatuz pertsonekin lotutako inprimaki eta erregistro guztietan.



Berdintasuna Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan osoan zehar islatutako zeharkako elementua da; izan ere, kapitulu guztietan aipatzen da: testuingurua, diagnostikoa, laguntza-neurriak, aginte-koadroa, behatokia eta gobernantza.

9. STEM BOKAZIOAK

2021-2025erako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak sakonduko du dagoeneko abiarazi den etapa anitzeko estrategian; horrek hezkuntza-maila guztiak

hartzen ditu barne, bokazio zientifiko-teknikoak sustatzeko eta benetako berdintasuna lortzeko helburu bikoitzarekin:

- Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokienez, eskola-ikasleen arlo horiekin lotutako bokazioak sustatzeko lan egingo da, arreta berezia jarriz emakumezkoengan.
- Unibertsitatera sartzeko unean dauden ikasleei dagokienez, helburua da emakumezkoengan STEM bokazioak sustatzea; horretarako, hauek inplikatu dira: Nafarroako Unibertsitate Publikoa; Hezkuntza Departamentua; Nafarroako Berdintasunerako Institutua (INAI / NABI) eta Nafarroako Institutu Zuzendarien Elkarte (ADI-Nafarroa).
- Unibertsitate-eremuko jarduerak, kristalezko sabaia saihesten dutenak eta emakumeak ahalduntzen dituztenak, bere karrera profesionalean aurrera egin dezaten (jarduera-adibidea: Nafarroako Unibertsitate Publikoko Berdintasun Unitatea).



Helburu hau 6. kapituluan - “Programak eta neurriak” dago jasota, herritarrei kultura zientifiko, teknologiko eta berritzailea hedatzeko neurrien barruan.

10. BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA

Hauek dira planak Berrikuntzaren Erosketa Publikoari dagokionez aurreikusitako jarduerak:

- Epe laburrera (2021-2022):
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren eskariaren mapa egitea Nafarroan.
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren profesionalizazioa.
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoko tresnak erabiltzen hastea. Merkatuari zuzendutako aurretiazko kontsulta Berrikuntzaren Erosketa Publikoko lehenbiziko proiektu estrategiko baten inguruan.
- Epe ertainera (legealdia):
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren sustapenerako aurrekontu-erreserba 2022ko Aurrekontuen Legean.
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoaren lehenbiziko pilotua abian jartzea.

- Parte-hartzea sustatzea Europako Berrikuntzaren Erosketa Publikoko proiektuen deialdietan.
- Epe luzera:
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoa txertatzea erosketa publikoaren kulturaren.
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoko emaitzak ustiatzea eta berriz inbertitzea.

Helburu hori 6. kapituluan - “Programak eta neurriak” dago jasota, berrikuntza- eta lankidetzajarduera areagotzeko erronkaren baitan.

6. PROGRAMAK ETA NEURRIAK

6.1 PLANAREN EGITURA. ARLOAK, ERRONKAK ETA NEURRIAK ETA 2030 AGENDAREKIKO LERROKATZEA

2021-2025erako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak I+G+b arloko Europako erreferente gisa kokatuko du Nafarroa, zientzia, industria, gizartea eta administrazio publikoaren arteko loturaren bitartez. Horretarako, **8 erronkei** erantzuten dieten **29 neurri** planteatu dira, **4 oinarri edo arlo** desberdinetan multzokatu direnak:

- **A1 Ezagutzaren sorkuntza:** talentua erakartzeko, atxikitze eta nazioartean proiektatzeko erronkei aurre egiteko neurriak jasotzen ditu, baita Nafarroako I+G+b Sistemako eragileen (SINAI) bikaintasun zientifiko teknikoa lortzeko neurriak ere.
- **A2 Lankidetzeta eta ezagutza-transferentzia:** enpresa-egituraren eta SINAI eragileen arteko lankidetzarako oztupoak murrizteko neurriak jasotzen ditu, baita beste eskualde batzuekin baterako garapenak dinamizatzeko neurriak ere.
- **A3 Enpresaren eremuko I+G+b sustatzea:** Nafarroako enpresa-egituraren jarduera berritzailea areagotzera zuzendutako neurriak jasotzen ditu, esfortzua ETEetan eta enpresa handien trakzio-efektuan zentratuz, zehazki, proiektu estrategikoen egikaritzapenaren bidez.
- **A4 Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien Bultzada:** enpresa horiek eskualdean sortzea eta finkatzea bultzatzeko neurriak jasotzen ditu.



Aurreko oinarri horiek **kultura zientifiko, teknologiko eta berritzailea hedatzeko neurrietan** eutsiko dira; izan ere, neurri horien helburu nagusia da herritarren inplikazio handiagoa lortzea berrikuntza-prozesuan, STEM titulazioen sustapena eta genero-arrakalaren murrizketa.



Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Nafarroako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren plangintza-tresnetako bat da; 8. zein 9. helburuetan dago jasota eta lagunduko du horietan planteatutako xedek lortzen: produktibitate ekonomikoa areagotzea, ekintzaitza sustatzea, industrializazio inklusiboa eta berrikuntzaren sustapena. Gainera, I+G+b proiektuak S4rekin lerrokatuta egikaritzeak eragina izan dezake Garapen Jasangarrirako zenbait Helburutan, besteak beste, hauetan: energia berriztagarrien erabilera areagotzea eta energia-eraginkortasuna hobetzea; txirotasuna desagerraraztea; goserik eza; osasuna eta ongizatea eta kalitatezko hezkuntza.

Azkenik, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean planteatutako neurri bakoitzaren definizioan eta ebaluazioan, kontuan hartuko dira 5. helburuan proposatutako xedek, emakumezkoen aukera-berdintasuna eta parte-hartzea sustatuz eta adierazleak hobetuz, adibidez, I+G sektoreetan lan egiten duten emakumezkoen ehunekoa, genero-berdintasunaren indizea edo enplegu-arrakala.

6.2 . ARLOEN, ERRONKEN ETA NEURRIEN LABURPENA ETA EGITURA

Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren lau arloek 8 erronka handi jorratzen dituzte eta 29 neurri planteatzen dituzte horiei aurre egiteko:

EREMUAK	ERRONKAK	NEURRIAK	BERRIA		ERAKUNDE ONURADU			
			BAI	EZ	SINAI	HANDIA	ETE	OTEB
1E - Ezagutza Sortzea	1E - Talentua erakarri eta mantentzea	1 N SINAI eragileei adskribaturiko ikertzaile seniorrak kontratatzea	X					
		2 N Doktoregai industrialak kontratatzeko laguntzen ildoak indartzea		X				
		3 N Ikertzaileak eta teknologia arloko langileak kontratatzeko laguntzen ildoak indartzea		X				
		4 N Unibertsitateko eta LHko ikasleen mugikortasuna enpresetan (ez-finantzarioa)	X					
	2E - Talentuaren nazioarteko proiektzioa	5 N SINAI eragileek kontratatutako ikertzaileen nazioarteko egonaldia sustatzea	X					
		6 N SINAI eragileek eta enpresek Horizon Europe programan parte har dezaten erraztea		X				
		7 N Doktoretza aurreko nazioarteko ikertzaileen Nafarroako egonaldietarako laguntza (WIT programa)	X					
	3E- SINAI eragileen I+Gko bikaintasun zientifiko-teknikoa	8 N SINAI eragileetan I+Gko ekipamendu eta azpiegiturarako laguntzen lerroa indartzea		X				
		9 N Zaintza teknologikoko jarduerarako laguntzak	X					
		10 N SINAI eragileen I+G proiektuetarako laguntzen deialdia mantentzea		X				
		11 N SINAI eragileentzako oinarritzko finantzaketa-sistema bat ezartzea	X					
2E- Lankidetzak eta Ezagutzaren Transferentzia	4E- SINAI eragileen eta enpresa-sarearen arteko lankidetzak handitzea	12 N Sektoreko plataforma teknologikoa	X					
		13 N Bonu teknologikoen eskemari berriro ekitea		X				
		14 N SINAI eragileen I+G+bko enpresa-proiektuetan laguntzea		X				
		15 N Medikuntza Pertsonalizatuaren Nafarroako Estrategia bultzatzeko ekintzak	X					
	5E - I+G+b arloko lankidetzak beste	16 N I+G+b proiektuak beste eskualde batzuetako eragileekin	X					
E3- Enpresetako I+G+b sustatzea	6E- Berrikuntza eta lankidetzak jarduera handitzea	17 N Nafarroako enpresetako I+G+b finantzatzea		X				
		18 N Ekintza pilotua Planifikatutako berrikuntzaren aurkikuntza	X					
		19 N "Berrikuntzaren hastapenerako" proiektuak	X					
		20 N Berrikuntzaren erosketak publikoak eta lankidetzak publiko-pribatua I+G+bn	X					
	7E- Inbertsioa berrikuntzan	21 N Berrikuntzarako laguntza: I+G ez diren inbertsio berritzaileak laguntzea	X					
		22 N Berrikuntza Digitalerako Poloa		X				
		23 N Europako patenteak (EP) eta nazioartekoak (PCT) eskatzeko pizgarri fiskalak	X					
		24 N I+G+bgatiko kenkaria berrikustea		X				
4E- Oinarri teknologikoko enpresa berrien sustapena	8E- Oinarri teknologikoko enpresa berriak gehitzea eta sendotzea Nafarroako S4 sektoreetan	25 N Oinarri teknologikoko enpresa berrientzako laguntzak mantendu eta indartzea		X				
		26 N Oinarri teknologikoko enpresa berrietan enpresak sustatzea	X					
		27 N Start-up bidezko berrikuntza irekiko prozesu sistematizatuak	X					
		28 N "Spin-off SINAI" edo "Spin-off Nafarroa" ziguiluak	X					
		29 N Inbertsioko foro sektorialak	X					

Oinarritzko ikerketa	TRL1 eta TRL2
Ikerketa aplikatua	TRL2, TRL3 eta TRL4
Garapen teknologikoa	TRL5, TRL6 eta TRL4
Berrikuntza	TRL8 eta TRL2

6.3 . 1. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – TALENTUA ERAKARTZEA ETA ATXIKITZEA

Berrikuntza ekosistema orekatua eta jasagarria sortzeko, nahitaezkoa da ezagutza edukitzea eta ezagutza edukitzea pertsonen sinonimoa da. Hortaz, Nafarroan ezagutzaren sorkuntza areagotu nahi badugu, ikertzaileen kopurua areagotu behar dugu.

Gainera, talentua atxikitzearen alde lan egin ez ezik, kanpora atera izan daitekeen hori erakartzearen alde ere egin behar da lan.

Neurriak lantaldeen sorkuntzan zentratu beharko dira, enpresei ezagutza eskainiko dietenak. Horrez gain, ezagutza-transferentzia pertsonena ere izango da, ikerketa-organismoetatik enpresetara.

Talentua erakartzeko, formula arinak ezarri behar dira, bikaintasunezko ikertzaile zientifiko eta akademikoak hautatzeko eta kontratatzeke; pertsona horiek gai izan behar dira ikerketa-talde berrien lidergoa bere gain hartzeko edo, bestela, bere ikerketa bereizgarria izan beharko da Nafarroako I+G arloko sisteman.

Era berean, baldintza profesionalak eta lan-baldintzak erakargarriak badira, errazagoa izango da ikertzaile garrantzitsuek bere karrerak Nafarroan garatzea erabakitzea.



1M – SINAI ERAGILEETARA ATXIKITAKO SENIOR IKERTZAILEEN KONTRATAZIOA

Beste autonomia-erkidego batzuetan arrakastaz funtzionatzen duen talentu ikertzailea erakartzeko eredia ezartzea eta egokitzea Nafarroako errealitatera; ildo horretatik, aztertu behar da fundazio bat sortzearen aukera, talentua erakartzeko neurriak kudeatuko dituen. Bere izaera definituko da eta eginkizun hauek esleituko zaizkio:

- Aldizka eta modu egonkorrean deitzea ikerketa-lanpostuen sorkuntza eta lan-kontratazio finkoa sustatzeko laguntzak.

- Hautagaiak ebaluatzeko eta hautatzeko prozesuak kudeatzea, ikertzaileen bikaintasuna eta kalitate zientifikoa zainduz, baita hautaketa-prozesuan genero-joerarik ez dagoela bermatuz ere.
- Lan-ildoak ebaluatzea eta aldatzea, bikaintasuna eta eragina hobetze aldera.
- Kontratatutako pertsona berriak atxikitza eta integratzea SINAI eragileen barruan.

Fundazioaren jarduerarekin batera eta hori funtzionamenduan egon arte, SINAIko exekuzio-eragileek senior ikertzaileak zuzenean kontratatzea babestea (ANDIA Programa).

2M – DOKTOREGAI INDUSTRIALAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-LERROA INDARTZEA

Enpresetan eta teknologia-zentroetan doktoregai industrialak kontratatzeke laguntzen aldeko apustua egiten jarraitzea, neurriaren eragina areagotuz.

Deialdiaren definizioan, proposatzen da emakumezkoen parte-hartzea sustatzen duten berariazko jarduketak aztertzea, talentu zientifiko teknologikoa txertatzeko, baita maskulinizatutako sektoreetan arrakala murrizteko berariazko jarduketak aztertzea ere.

3M – IKERTZAILEAK ETA LANGILE TEKNOLOGIKOAK KONTRATATZEKO LAGUNTZA-LERROA INDARTZEA

Tituludunak kontratatzeke laguntzen aldeko apustua egiten jarraituko da, I+G+b arloko jardueretan parte har dezaten, baita enpresetan eta teknologia-zentroetan jardura horiek babesteko edo kudeatzeko atazetan ere.

Deialdiaren definizioan, proposatzen da emakumezkoen parte-hartzea sustatzen duten berariazko jarduketak aztertzea, talentu zientifiko teknologikoa txertatzeko, baita maskulinizatutako sektoreetan arrakala murrizteko berariazko jarduketak aztertzea ere.

4M – UNIBERTSITATEKO ETA LANBIDE-HEZIKETAKO IKASLEEN MUGIKORTASUNA ENPRESETAN

Unibertsitate-ikasleek Nafarroako enpresetan egiten dituzten ikerketa-jarduerak erregistratzea, ikusaraztea eta indartzea, zehazki, gradu amaierako proiektuen eta masterren esparruan. Horiez gain, lanbide-heziketako ikasleak gehi daitezke, praktikak I+G+b arloko proiektuekin lotutako enpresaren batean egiten badituzte.

Aurrekoa indartzeko, neurria ezartzeko lankidetzaren mekanismoak eta hitzarmenak artikulatu litezke, enpresa-elkarteen eta klusterren bidez, emakumeen parte-hartzea sustatuz, bereziki, maskulinizatutako sektoreetan.

6.4 . 2. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – TALENTUAREN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA

Nafarroa, eragin altuko aldizkarietako argitalpen zientifikoei dagokienez, nazio-mailako batezbestekoaren gainetik dago, baita Espainiako lehenbiziko lau eskualdeen artean ere, zehazki, ICONO plataforman argitaratutako azkenengo datuen arabera. Europako eskualdeen batezbestekoarekiko, apur bat beherago posizionatuta dago eta, oraindik ere, hobetzeko aukerak ditu Europako eskualderik aurreratuenekiko.

Nafarroan, argitalpen zientifikoen nazioarteko egilekidetasuna Europako eskualde-multzoaren batezbestekoaren gainetik dago, baina Europako eskualderik aurreratuenengandik urrun.

Nafarroako ikerketa-taldeek ezagutza abagune itzela da Europako I+G programetan parte hartzeko; izan ere, horrela, finantziazio-iturri handia lortzeaz gain, batez ere, elkarlanean aritzeko eta epe ertainera zein luzera nazioarteko abangoardiako ikertzaileekin harremanak ezartzeko aukerak lortzen dira.

Berrikuntza-sistema indartzeko beste modu bat da beste herrialde batzuetako kanpo-talentuarekin aberastea: bai gure ikertzaileen irteeran, bai trebakuntza-maila altuko langile berrien erakarpenean.

Ikertzaileen ezagutza eta bikaintasuna areagotzeko, funtsezkoa da langileak sartzea eta irtetea erraztea, ikuspegi desberdina eskainiko dutelako eta nazioarteko aliantzak sortzen lagunduko dutelako; horrela, baterako ekintzak bultzatu daitezke, besteak beste, lankidetzaren proiektuetarako, lan-sareetarako edo argitalpen zientifikoetarako.



5M – SINAI ERAGILEEK KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN NAZIOARTEKO EGONALDIAK SUSTATZEA

SINAI eragileek kontratatutako langileen nazioarteko irteera babestea bestelako ikerketa-erakunde batzuetara joan ahal izateko beharrezkoak diren mugikortasun-gastuak finantzatzuz (ostatua, mantenua eta lokomozioa). Hori guztia, helburu zehatz honekin:

- Ezagutza osagarriak lortzea.
- Etorkizunean baterako ekintzak sortuko dituzten nazioarteko aliantzen sorkuntza bultzatzea hauei dagokienez: lankidetzaproiektuak, lan-sareak, argitalpen zientifikoak, etab.

6M – SINAI ERAGILEEN ETA ENPRESEN PARTE-HARTZEA ERRAZTEA HORIZON EUROPE PROGRAMAN

SIC bonu-lerroak aholkularitza-gastuak finantzatzen ditu, I+G arloko nazioarteko programetarako proposamenak zehazteko, lantzeko eta aurkezteko. Neurri honetan, hauxe proposatzen da:

- SINAI eragileentzako eta enpresentzako SIC bonuen egungo lerroa indartzea, bere eraginkortasuna handituz.
- Laguntzen emakidaosatzea finantzatutako proiektuak lortu dituzten SINAI eragileen eta enpresen hedapen-ekintzarekin. Horrez gain, beste eskualde batzuekin ezarriko diren lankidetzaberriekin lotutako abantailak zabalduko dira.

7M – LAGUNTZA NAZIOARTEKO DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEEK EGONALDIAK NAFARROAN EGITEKO (WIT PROGRAMA)

WIT (Welcoming International Talent) nazioarteko ikuspegia duen doktoratu aurreko laguntzetarako programa berria da, oso lehiakorra eta merezimenduetan oinarritutakoa. Bere helburua da ikertzaileak erakartzea Nafarroara, bertan 36 hilabeteko egonaldia egin dezaten, doktorego-programa berritzaileak garatzeko, besteak beste, eremu hauetan eta zeharkako arloa adimen artifiziala delarik: Osasuna; Ibilgailuen Industria-Mekatronika eta Fabrikazio Aurreratua eta Energia. Programa hau Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak finantzatzen dute, Horizonte 2020 Programaren parte gisa – Marie Skłodowska Curie Ekintzak.

Planean, hauxe proposatzen da:

- Neurriak nazioarteko lankidetzasareak ezartzeko duen eraginkortasuna baliozkotzea eta programa mantentzea, deialdi berriak argitaratuz.
- WITaren antzeko Europako deialdiak identifikatzen eta horietan parte hartzen jarraitzea, talentuan inbertsio handiagoa erakartzea lortzeko.

6.5 . 3. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – SINAI ERAGILEEN BIKAINASUN ZIENTIFIKO-TEKNIKOA

SINAI eragileen bikaintasun zientifiko-teknikoa sustatzeko, hiru alderdi garrantzitsu hauetan aurrera egin behar da: egonkortasun ekonomikoa, ezagutza berria sortzen duten ikerketak egin ahal izateko; hori ahalbidetzen duen ekipamendu aurreratua eta etorkizun-ikuspegia, industriak eta gizarteak aurre egin beharko dizkieten erronkak aurreikusteko, aurrera egiteko eta lehiakorak eta puntakoak izateko, bai Europan, bai mundu osoan.

SINAI eragileek epe ertainerako zein luzerako estrategia bat garatu behar dute, planteatzen diren erronka gero eta zorrotzagoak gainditzeko. Jada ez da nahikoa proiektu zehatzekin ezagutza sortzarekin; beharrezkoa da urte anitzeko babes egonkorra edukitzea, bai inbertsioei, bai pertsoneri dagokienez.

Ekipamendu eta azpiegituretan inbertitu behar da, puntako edo abangoardiako I+G burutzeko. Beharrezkoa da azkenengo belaunaldiko teknologietan trebatzea; izan ere, teknologiak oso azkar aldatzen dira eta zaharkitzen dira. Horregatik, finantzatu eta mantentzeko zailak diren inbertsioak egin behar dira. Finantziazio-lerro egonkorra behar da, teknologia-zentroen, ikerketa-zentroen eta unibertsitateen azpiegiturak eta instalazioak aldizka eguneratu eta modernizatzeko.

Teknologia-zentroek zaintza teknologiko handia behar dute, enpresek bost urteko epean aurre egin beharko dieten erronka teknologikoen identifikazioa erraztuko duena. Horrela, zentroak konponbide berri horiek enpresa-egiturara transferitzeko egokiak diren gaikuntza-proiektuak diseinatu ahalko ditu. Zaintza teknologikoa etorkizunera eta teknologia berrien ezarpena bideratu behar da, enpresak detektatu ez dituen baina gizartearen etorkizuneko erronkak gaindituko dituzten teknologiak barne hartuta.



8M – SINAI ERAGILEEN I+G ARLOKO EKIPAMENDURAKO ETA AZPIEGITURETARAKO LAGUNTZEN LERROA INDARTZEA

SINAI eragileek ekipamendu zientifikoa eta teknologikoa erostea babestea, kalitatezko ikerketa zientifiko-teknikoa erraztuz. Hauxe proposatzen da:

- Deialdiaren egonkortasuna ziurtatzea, SINAI eragileen premiak asetzea ahalbidetzen duen urteko aurrekontu-zuzkidurarekin.
- Laguntza-lerro honen bidez finantzaturako ekipamendua hedatzea eta SIESS “*Scientific Infrastructure & Equipment Sharing System of Navarra*” Plataforman txertatu dela ezagutzera ematea. Hori egingo da bere erabilera partekatua berri emateko eta erabilera hori errazteko, bai SINAI eragileen artean, bai Nafarroako enpresen artean (zerbitzua erosten dutenak bere entsegetarako).

9M – ZAINZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

Laguntza-lerro bat sortzea SINAI eragileek zaintza teknologikoko jarduera egituratuak egiteko. Deialdiak hauxe ahalbidetuko die eragileei:

- Joera teknologikoen inguruko informazio egiaztatua edukitzea, ezarri beharreko ikerketa-ildoen eta epe ertain-luzera indartu beharreko gaitasunen gaineko erabaki estrategikoak hartzeko oinarria izango baitira.
- Mantentzea bereizgarri bat eta balio erantsia, enpresei eta, bereziki, ETEei transferitzeko konponbideak eta ezagutza sortzeari dagokionez.

Berrikuntza Behatokiaren bidez, laguntza-lerro honetan babestutako zaintza teknologikoko txostenen emaitza nagusiak hedatuko dira.

10M – SINAI ERAGILEEN I+G ARLOKO PROIEKTUENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIA MANTENTZEA

SINAI exekuzio-eragileek burututako I+G jarduera oinarrizkoa da ezagutza erakartzeko, barneratzeko eta I+G+b arloko sistemara zein enpresa-egiturara transferitzeko eginkizuna garatu ahal izateko. SINAI eragileen bikaintasuna zein proiektuen kalitatea sustatzeko, hauxe proposatzen da:

- Norgehiagokako laguntzen deialdi bat mantentzea I+G arloko jardueretarako.
- Erronka handizaleak ezartzea ahalbidetzen duten urte anitzeko proiektuak finantzatzea.
- Eragileen arteko lankidetzaren proiektuen garapena sustatzea, sinergiak eta emaitzen irismena handitzeko.
- Sexu/genero alderdia kontuan hartzea proiektuen ikuspegian.

Gainera, SINAI eragileek bereganatutako ezagutza Nafarroako gainerako ekosistemara transferitzea errazteko, proposatzen da Berrikuntza Behatokiaren bidez finantzatutako proiektuen garapenari esker lortutako gaitasun berriak hedatzea.

11M – OINARRIZKO FINANTZIAZIO-SISTEMA BAT EZARTZEA SINAI ERAGILEENTZAT

Oso TRL baxuetara zuzenduta dauden, merkatuarengandik urrun dauden eta, epe labur-ertainera, itzulera ekonomikorik ez duten I+G arloko lehiaren aurreko jarduerak egitean egonkortasuna eta jarraitutasuna bermatzeak ahalbidetzen du SINAI eragileen apustu zientifiko-teknologikoak bideratzea zenbait urtetako denbora-horizontearekin. Horrez gain, horrela, ezagutza-maila eta erronkarik handizaleenei aurre egiteko gaitasuna handitu daitezke. Hori lortzeko, hauxe proposatzen da:

- Aplikatzea 10. neurrian deskribatutako norgehiagokako finantziazioaren osagarri den oinarrizko finantziazio bat.
- Definitzea emaitzetara bideratutako finantziazio-eskema finko-aldakor bat, apurka-apurka ordeztuko duena I+G arloko jardueren finantziazio izenduna. Adostea, entitate onuradun bakoitzarekin, emaitzen eta helburuen adierazleak abiapuntu-egoeraren arabera eta, besteak beste, honakoari dagokionez: argitalpenak; patenteak; Estatuko eta Europako funtsen bilketa; enpresekiko kontratuak; ikertzaileen transferentzia; *spin-off*ak, etab.
- Garatzea teknologia-zentroekin oinarrizko finantziazio sistemaren ikaskuntza- eta doitze-prozesua eta, apurka-apurka, gainerako SINAI eragileei hedatzea.
- Ematea neurriari denbora-egonkortasuna.

EvolTECH deialdia erdiko urrats bat da, teknologia-zentroen oinarrizko finantziazioaren ikaskuntza- eta doitze-prozesuan.

6.6 . 4. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – SINAI ERAGILEEN ETA ENPRESA-EGITURAREN ARTEKO LOTURA AREAGOTZEA

Merkatuaren premiengandik hurbil dagoen enpresa sektorearen eta erronka berriak gainditzeko gaitasuna duten ikertzaileen arteko lotura babesteak I+G+b ekosistemaren jarduera berritzailea azkartzen du.

I+G+b arloko jarduera identifikatzeko eta planifikatzeko, nahitaezkoa da informazioa edukitzea, bai enpresen premia teknologikoei dagokienez, bai egungo berrikuntza-abagune teknologikoei dagokienez. Horrez gain, informazioa eduki behar da SINAI eragileen artean dauden gaitasunen eta profil egokien inguruan, lankidetzaproiektuak sortuko dituztenak. Horretarako, komunikazio-bide eraginkorrak ezarri behar dira, Nafarroako I+G+b arloko ekosistemako eragileen arteko lankidetzaren dinamizatuko dutenak.

Merkataritza-helburu zehatza duten enpresek gainditu beharreko erronka teknologikoak definitu beharko lituzkete SINAI eragileekin.

Lankidetzarako beste bide bat izan daiteke ETEen sarbide partekatua ikerketa- edo teknologia-zentroetan I+G+b arloko jardueretarako eskuragarri dauden I+G arloko instalazioetarako edo ekipamenduetarako, horrela teknologiaren eremuko inbertsioak murriztuz.

Halaber, garrantzitsua da enpresek SINAI eragileengana jotzea, I+G arloko zerbitzuetarako ez ezik, orientazio teknologikorako eta kontsultarako ere bai. Enpresak zentroak aholkularitzarako gaitasun teknologiko operatiboa edukitzea behar du edo, bestela, laguntza teknikoa edo zerbitzuak edukitzea. Horrela, errazten da enpresaren eta SINAI eragileen arteko hurbilketa. Egindako diagnostikoan, bere berrikuntzak beste erakunde batzuekiko elkarlanean garatzen dituzten Nafarroako enpresen ehunekoa baxua dela identifikatu egin da.

Berrikuntza-jarduerak egiteko lankidetzan aritzen diren enpresen kopurua murriztua da eta, horien artean, gehienek beste enpresa batzuekin egiten dute lan, heren batek unibertsitateekin eta bosten batek ikerketa-zentroekin.

Halaber, enpresek berrikuntza-jardueretan gastatzen duten guztizko kopuruarekin alderatuta, kanpoko I+G erosteko edo lortzeko gastuen ehunekoa oso txikia da eta nabarmen hobea daiteke enpresen eta SINAI eragileen arteko lankidetzarako.



12M – PLATAFORMA SEKTORIAL TEKNOLOGIKOAK

Eragile bideratzaileak badaude sartuta onuradun gisa I+G arloko proiektuentzako laguntza batzuetan. Foro iraunkorrak sortzen dituzten eta foro horietako eragile guztien arteko lankidetzaz-berrikuntza sustatzen duten eragile bideratzaileak edukitzeak (klusterrak edo enpresa-elkarte sektorialak) dinamismo eta eraginkortasun gehiagoko ekosistema bat sorraraziko du. Hauxe proposatzen da:

- Finantzatzea plataforma sektorial horiek abian jartzeko prozesua, baita autofinantzatzea lortu arteko hasierako etapa ere.
- Sustatzea topaketa-jardunaldiak, komunikazioa eta hedapena antolatzea, bai zuzenean, bai birtualki, bai aldizka, bai modu zehatzean, hain zuzen ere, I+G arloko enpresa eta entitateekin lankidetzak-akordioak bultzatzeko.

13M – BONU TEKNOLOGIKOEN ESKEMA BERRARTZEA

Tresna hau ezagutza-transferentziarako SINAI Bonuak izendatuko da eta ETEak SINAI eragileengana hurbiltzea erraztuko du, baita garrantzia handiko etorkizuneko lankidetzak sortzea ere, zehazki, I+G arloko proiektuak sortzea. Hauxe proposatzen da:

- Finantzatzea Nafarroako ETEek SINAI eragileei honakoa kontratatzea: I+G+b babesteko zerbitzuak; zaintza teknologikoa; bideragarritasun-azterlanak; aholkularitza teknologikoa eta I+G arloko proiektuen edo konponbideen diagnostikoa eta orientazioa.
- Bonuaren gastu hautagarri gisa hartzea SINAI eragileen I+G ekipamenduen edo azpiegituren erabilera partekatzeak gastuak.
- Ematea balorazio handiagoa, emandako bonuetan, SINAI eragileen *spin-off*ei eta oinarri teknologikoko enpresa berriei.

14M – LANKIDETZA SINAI ERAGILEEN I+G+B ARLOKO ENPRESA-PROIEKTUETAN

Mantentzea ezagutza transferitzeko proiektuen egungo modalitatea; horretan, SINAI eragileek paper dinamizatzailea dute I+G+b arloan, bereziki ETEen kasuan. Gainera, neurri honetan, hauxe proposatzen da:

- Piztea lankidetzak, Estatuko I+G+b arlorako laguntzen Esparru Komunitarioan baimendutako maximoengandik hurbil dauden laguntza-intentsitateak aplikatuz.
- Areagotzea ekonomia zirkularra eta Europako proiektuetako parte-hartzea pizteko laguntza.
- Areagotzea ikerketa-taldearen parekotasunaren aldeko laguntza-baremoa edo intentsitatea eta proiektuaren genero-ikuspegia aztertzeak atal bat gehitzea.
- Genero-arrakala murrizteko ekintzak aztertzea ikerketa-taldeentzat, bai maskulinizatutako, bai feminizatutako sektoreetan.
- SINAI eragileek partzuergoetan parte hartzeak tipologia malgutzeko aukera aztertzea.

15M – NAFARROAKO MEDIKUNTZA PERTSONALIZATUAREN ESTRATEGIA BULTZATZEKO EKINTZAK

Nafarroako Medikuntza Pertsonalizatuaren Estrategia herritarrei emandako osasun-zerbitzua hobetzeko apustu bat da, hain zuzen ere, hauen arteko elkarlanaren bidez: zientzia, teknologia,


laborategia, kontsulta klinikoa eta osasun-profesionalek emandako laguntza. I+G+b arloaren barruan, Nafarroa eskualde ikertzaile bikaina izatea lortzea da helburua, emaitzak lortu nahi dituen termino hauetan: osasuna; gizarte-errentagarritasuna; talentuaren erakarpina eta atxikipena; zeharkakotasuna eta diziplina anitzeko lankidetzak. Hori lortzeko egitaritu beharreko ekintzak hauek dira:

- epe luzearako finantziario egonkorra;
- talentu espezializatua erakartzea, atxikitzea eta itzultzea;
- aliantza estrategikoak;
- laguntza- eta aholkularitza-unitateak sortzea;
- nazioartekotzea.

6.7 . 5. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEKIKO LANKIDETZA I+G+bREN EREMUAN

Baliatzea Nafarroatik kanpoko beste eskualde batzuetako eragileekin elkarlanean aritzeko aukerak, eskualdeko ezagutza eta balio-katea indartuko dutenak, Nafarroako I+G+b ekosistemako eragileak teknologiaren abangoardian posizionatuz.

Puntako ezagutza hori irismen handiagoko I+G arloko lankidetzak-proiektuen bidez lortu ahalko da, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europako beste eskualde batzuetako parte-hartzaileekin edo entitateekin elkarlanean.



16M – I+G+B PROIEKTUAK BESTE ESQUALDE BATZUETAKO ERAGILEEKIN

Nafarroak, plan osagarriekin, ekingo dio bere parte-hartzeari, Estatuko Administrazio Orokorren eta beste autonomia-erkidego batzuen artean I+G+b arloko jarduerak elkarrekin finantzatzuz. Neurri honetan, proposatzen da lankidetzan oinarritutako eta modu deszentralizatuan finantzatutako I+G+b arloko proiektuei dagokienez abian jarritako eskema indartzea eta osatzea. Zehazki, hori egingo da jarduketaren bidez:

- Identifikatzea intereseko eremuak edo sektoreak eta eskualdeak, batera burututako I+G+b arloko jarduerak batera finantzatzeko.
- Ezartzea, apurka-apurka, alde biko edo alde anitzeko akordioak identifikatutako autonomia-erkidegoekin, Nafarroarentzat estrategikoak diren eremuetan (S4) I+G arloko deialdiak koordinatzeko eta batera finantzatzeko (autonomia-erkidego bakoitzak bere erakundeei).
- Aztertzea sektore zehatz batzuetan elkarlanean aritzeko interesa eta potentziala dituzten Europako eskualdeak. Baldintza izango da sektore horietan, Nafarroan, enpresa-egitura garrantzitsua eta finkatua egon behar dela eta Nafarroatik kanpoko entitateekin elkarlanean aritzera ohituta egon behar dutela (zehazki, honakoak bezalako lehentasunetan: energia berdearen industria; elikadura osasungarria eta jasangarria eta mugikortasuna).
- Deialdiak sinkronizatzea eta proiektuak ebaluatzeko irizpideak harmonizatzea beste autonomia-erkidego batzuekin.
- Lankidetzari ekitea eta lortutako emaitzen segimendua egitea.

6.8 . 6. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – BERRIKUNTZA- ETA LANKIDETZA-JARDUERA AREAGOTZEA

Nafarroako enpresa-ekosistema, nagusiki, dimentsio txikiko enpresek osatzen dute eta horrek I+G+bren eremuan esfortzuak egiteko ahalmena baldintzatzen du.

ETEetan, produkzio-jarduera zein epe laburra lehenesten dira eta hori oztopo bat da, bai kultura berritzailea ezartzeko, bai eskuragarri dauden tresna publikoak erabiltzeko. Gainera, enpresa txikienek ez dute finantza-euskarri nahikorik berrikuntzaren eremuko porrotei aurre egiteko; hortaz, arrisku txikiagoko ideiak lehenesten dituzte.

Identifikatu dira Nafarroako enpresa asko uste dutenak eskualde-mailako I+Gko laguntzetarako sarbidea eta horien kudeaketa oso konplexuak direla; horregatik, eskatzeari uko egiten diote eta, horrela, bere baliabideak areagotzeko aukera galtzen dute.

Bestalde, ez dago ETEen eta teknologia-zentroen arteko lankidetzarik, plangintza-, irismen- eta aurrekontu-zailtasunak dituztelako.

Enpresen eta SINAI eragileen arteko lankidetzak eskasa denez, zaila da Nafarroan erronka berriei aurre egiteko dagoen potentziala aprobetxatzea, baita funts publikoengandik I+G+bko jarduerentzako finantziak jaso zezakeen aukera baliatzea ere. Estatu-mailako deialdiek aurrekontu-zuzkidura handiagoak dituzte, NGEU funtsekin eta Horizon Europe programa europar berriarekin areagotuko direnak.

Proiektu estrategikoen deialdia lankidetzaren hasierarako abiapuntua izan da eragin altuko proiektuentzat; hori alda liteke eta Nafarroako I+G+b arloko eragileen arteko lankidetzaren sistema malguagoa bihurtu liteke, potentzial estrategiko altua zein balio erantsi handia duten ildoen inguruan.

Gainera, mikroETEEK osatutako ikus-entzunezko industria eta turismoa bezalako sektoreetan, lankidetzari esker, lortzen da I+G+b arloko proiektuak lantzeko gaitasuna duen ikertzaileen masa kritiko batengana heltzea, eguneroko lanarekin bateratuz. Horrez gain, horrela, proiektuak bata besteari atzetik burutu daitezke, bi sektore horietako zerbitzuak eta produktuak aldatuz.



17M – NAFARROAKO ENPRESA-EREMUKO I+G+B FINANTZATZEA

Balio-kate osoan ikerketa, ezagutza, garapen teknologikoa eta berrikuntza integratzen dituen dinamismo handiko I+G+b ekosistema bat edukitzeak honako hau sustatzen du: eragileen arteko lehiakortasuna eta eskualdeko ekonomiaren zein herritarren ongizatearen hazkundera. Hortaz, neurri honetan, proposatzen da enpresaren eremuko I+G+b arloko proiektuen egikaritzapena indartzea, zehazki, honakoaren bidez:

- Aztertzea I+G+b arloko enpresa-proiektuen eskaeren kudeaketa sinplifikatu, malgotu eta errazteko aukerak, ahal den neurrian murriztuz proiektu bakoitzeko justifikazioen kopurua.
- Banakako proiektuetan eta enpresen arteko lankidetzaren proiektuetan, enpresek SINAI eragileak azpikontratatzeko lehenestea, lankidetzaren eta ezagutzaren enpresa-egiturarako transferentzia artikulatzeko bitarteko nagusi gisa. Horrela, trakzio-efektua lortzen da enpresengandik SINAI eragileengana, eskarira bideratutako espezializazioan lagunduz eta berrikuntza-kultura sortuz Nafarroako enpresa-egituran.

- Areagotzea laguntza-intentsitatea, Estatuko I+G+b arlorako laguntzen Esparru Komunitarioak baimendutako maximoetara heltzeko aukera duten banakako proiektuetan.
- Mantentzea ikerketa-taldeen parekotasunaren aldeko laguntza-baremo edo intentsitate handiagoko irizpideak eta proiektuaren genero-ikuspegia aztertzeko atal bat gehitzea.
- Proiektu estrategikoen deialdia S4 Estrategian definitutako arlo berriekin lerrokatuta eta eguneratuta mantentzea.

18M – EKINTZA PILOTUA: PLANIFIKATUTAKO BERRIKUNTZAREN AURKIKUNTZA

ETeen berrikuntzaren eskaria piztea, ETEen berrikuntza-potentzialaren eta finantziarako eskuragarri dauden mekanismo publikoen inguruko diagnostikoak eginez. Neurri honetan, hauxe proposatzen da:

- ETEen berritzeko gaitasunaren inguruko diagnostikoak egitea finantzatzea, baita hori finantziario publikoa lortzeko nola egituratu behar den jasotzen duten diagnostikoak egitea ere. Pertsona espezialistaren laguntza doakoa izango da ETE onuradunarentzat.
- Diagnostikorako etapa desberdinak edukitzea, ETEaren ezagutzaren arabera: 0 etapa (lehenbiziko eskualde-proiektua); 1. etapa (nazio-mailako lehenbiziko proiektua) eta 2. etapa (Europako lehenbiziko proiektua). Hala, 2. etaparako, koordinazioan lan egingo da, bai Europako Proiektuen Bulegoarekin, bai 2021-2024 Kanpo Ekintzaren Planaren neurriekin.
- Zerbitzuaren prestazioan, kontuan hartzea espezialista batek ETEari laguntzeko aukera, zehazki, *“learning by doing”* motako prozesu batean.

19M – “BERRIKUNTZAREN HASTAPENEKO” PROIEKTUAK

Erraztea aurretiaz I+G proiektuetan esperientziarik ez duten ETEek arrisku eta kostu gutxiago edukitzea, proiektua egikaritzeko erabakian laguntzen dieten jarduketak zehatzak finantzatzuz. Honakoak bezalako berrikuntza-jarduketak finantzatzea:

- Kontzeptu-probak.
- Xede-merkatuaren eta lehiaren azterlana.
- Bideragarritasun teknikoaren azterlana.
- Teknikaren egoeraren eta ideia berritasun-mailaren inguruko txostenak.
- Erakusgailu txikiak.
- Finantza-bideragarritasunaren azterlana.

Kudeaketa arin eta sinplifikatuko deialdiak definituko dira.

20M – BERRIKUNTZAREN EROSKETA PUBLIKOA ETA LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA I+G+BN

Berrikuntzaren erosketak publikoak administrazio publikoen berriazko premietara egokitutako produktu eta zerbitzu berriak sortzea ahalbidetzen du, baita garapen teknologikoa burutzen duten enpresekiko baterako garapen teknologikoa ere, horrela, eskualdearen bilakaera teknologikoa lortuz. Neurrian hauxe proposatzen da:

- Berrikuntzaren erosketak publikoak piztea Nafarroako Gobernuako departamentuetan.
- Sustatzea I+G+b arloko lankidetzak publiko-privatua, araudi- eta entsegu-esparruak sortuz (kontrolatutako entseguen “*sandbox*”). Horrela, erraztuko da enpresek administrazio publikoen lankidetzak edo parte-hartzea eskatzea “*living labs*” proiektuetan, bereziki, energia berriztagarriak edo “*medical devices*” bezalako sektoreetan. Izan ere, horietan, bereziki kritikoa da produktu berriztagarriak baliozkotzea funtzionamendu-ingurune errealean edo eskala errealean simulatutako inguruneetan.
- Osasunaren sektoreko enpresa-eremuko I+G+b arloan, osasunaren eremuko ikertzaileekiko lankidetzak errazten duten tresnak eta egiturak aztertzea.

6.9 . 7. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – BERRIKUNTZAN INBERTITZEA

Enpresa batean, inbertsio teknologikoak bere zerbitzuetan eraginkorragoa izatea ahalbidetzen du, bere lehiakortasuna handituz. “*European Regional Innovation Scoreboard*” Taularen (Europako eskualdeen berrikuntza-adierazleen taula) datuen arabera, Nafarroako ETEen berrikuntza-jardueretarako inbertsio-ehunekoa, besteak beste, ekipo edo makina berrietan, lizentzien eta patenteen erosketan, bere fakturazioarekin alderatuta, asko hobe daiteke, batez ere, berrikuntzan liderrak diren Europako eskualdeetako ETEekin alderatzen bada adierazle hori. Hortaz, badago lehiakortasuna hobetzeko aukera, berrikuntzan inbertituz.

Inbertsio teknologikoko premien artean, Nafarroako ETEen eraldaketa digitala dago, bereziki, turismoaren sektorean. Hain zuzen ere, Nafarroan, turismoaren sektoreko enpresa-egitura oso atomizatuta dago eta teknologikoki gutxi garatu egin da.

Ikus-entzunezko sektorearen kasuan, inbertsio teknologikoa material informatiko aurreratuan zentratzen da, berebizikoa dena bere lehiakortasuna mantendu ahal izateko eta proiektu berriak egikaritzeko, etengabe behar direlako eguneraketak, bai hardware-eguneraketak, bai software-eguneraketak.

INE Berrikuntza Inkestaren datuak “*European Regional Innovation Scoreboard*” Taulak ere baieztatzen ditu eta datuek erakusten dute, Nafarroako enpresa berritzaileen artean eta, batez ere, ETEen artean, Europako patenteen (EP) zein nazioarteko patenteen (PCT) eskaera oso baxua dela. Laburbilduz, Nafarroako enpresa gutxik planteatzen dute nazioarteko merkatuetan produktu berritzaileak babestea.

Neurri horiek Nafarroako Industria Planaren jarduketekin osatuko dira.



21M – LAGUNTZA “b” TXIKIARENTZAT: I+G EZ DIREN BERRIKUNTZA-INBERTSIOAK BABESTEIA

ETEarentzat berritzaileak diren teknologia berritzaileen ezarpena edo egokitapena errazten duten laguntzen lerro bat gehitzea, berrikuntzarako eta inbertsiorako laguntzak indartuz, honakoak bezalako jarduketetarako:

- Babesa 7 eta 8 bitarteko TRL maila duten berrikuntza-proiektuen egikaritzapenean.
- Aktiboki gehitzea eta egokitzea enpresan berrikuntza eragiten duten teknologiak, baita teknologiak hobetzeko zein merkatu berrietara egokitzeko prozesuak ere.
- Produktu- eta prozesu-ingeniaritza eta diseinu industrialak aplikatzea hobekuntza teknologikorako.
- Aplikatzea produkzio- edo hornidura-metodo berria edo nabarmen hobetua, barne hartuta teknikekin, ekipoekin edo programa informatikoekin lotutako aldagata esanguratsuak.

22M – BERRIKUNTZA DIGITALAREN POLOA

Berrikuntza Digitalaren Poloa Nafarroako enpresen eraldaketa digitala ahalbidetuko duen mekanismoa izango da, lagunduko dielako bere lehiakortasuna mantentzen globalizatutako merkatu batean eta, gainera, datuak erabili ahalko dituzte erabakiak hartzeko. Halaber, teknologiak eskaintzen dituen abantailak baliatu ahalko dituzte, bere produktu, prozesu eta zerbitzuetan eraginkorragoak izateko.

Neurri honek proposatzen du Nafarroako enpresen eraldaketa digitala indartzea, honetara bideratutako laguntza-lerroak sortuz:

- Gehitzea hasierako egoeraren diagnostikoetan oinarritutako enpresa-digitalizaziorako laguntzak, bilakaera-ibilbideen bidez.
- Hobetzea pertsonen gaitasun digitalak, Gaitasun Digitalen Europako Esparruan oinarrituta.
- Baliatzea Berrikuntza Digitaleko Poloaren lankidetzeta eta potentziala, ETEen eraldaketa digitala azkartzeko.
- Kontuan hartzea horrelako gastuengatiko zerga-kenketa, enpresa handiak ere txertatuz prozesua azkartzen laguntzen duten pizgarrietan.

23M – ZERGA-PIZGARRIAK EUROPAKO PATENTEAK (EP) ZEIN NAZIOARTEKO PATENTEAK (PCT) ESKATZEKO

Kalkulatzen da, batez beste, hiru urte igarotzen direla patente bat babesten denetik bere merkataritza-ustiakuntza (zuzenean edo hirugarrenei lizentzia emanez) eta horrekin lotutako itzulera ekonomikoa lortu arte. Horregatik, proposatzen da berrikuntzarako zerga-kenkariak aztertzea, EP eta PCT patenteen hasierako eskaera eta emakida egiteko enpresa-gastuei dagokienez. Hori hala izango da, baldin eta gastu horiek ez badaude sartuta I+G+b arloko proiektu batean eta proiektu hori ez badago jada kalifikatuta I+G+b arloko kenketa aplikatzeko.

24M – I+G+bKO KENKETAREN BERRIKUSPENA

Aplika litezkeen zerga-proposamenak egiteko aukerak aztertzea, adibidez, hauek:

- Handitzea I+G+bko kenketa-ehunekoak, berrikuntzaren (b txikia) zerga-tratamendua hobetuz, bai produktuan, bai prozesu eta zerbitzuetan, garrantzitsua delako lehiakortasunera begira.
- Aztertzea honako eremuekin lotutako I+G+bko arloan babes gehigarria emateko aukera: trantsizio ekologikoa; ekonomia zirkularra; ekoberrikuntza edo berrikuntza ekoeraginkorra. Hori guztia industria garbiago bateranzko aurrerapena bultzatzeko.
- Handitzea zerga-kredituaren erabilera, bestelako zerga batzuk, gizarte-aseguruak edo aurreko ekitaldietako zergak ordaintzeko erabiltzea ahalbidetuz.
- Berrikustea nola aplikatzen ari den enpresetan ukiezinen fakturazioarekin lotutako zerga-pizgarria (Patent Box) eta, hala badagokio, hori aldatzea.

6.10 8. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – OINARRI TEKNOLOGIKOKO ENPRESA BERRIAK AREAGOTZEA ETA FINKATZEA NAFARROAKO S4 SEKTOREETAN

Erronka honetan, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Nafarroako Ekintzailatza Planarekin osatzen da. SINAIko eragileek oinarri teknologikoko enpresa berriak edo *spin-off*ak sortzea eta finkatzea hobe daitekeen eremua da eta horiek pizteko aukerak ugariak izan daitezke.

Osasunaren sektoreko startupetan eta enpresa berrietan, oso garrantzitsua da ikertzaile klinikoak izatea, enpresen ikerketa-lana babestuko dutenak. Gaur egun, langile horiek denbora mugatua dute ikertzeko. Ohikoa izaten da bere denbora pertsonala lagatzea startupe, horren truke, etorkizuneko argitalpenetan bere lana aintzatetsi dezaten.

Osasunaren sektoreko startupetan, produktu baten (*biofarma* edo *medical device*) garapena finantzatzea prozesu luzea eta garestia da; izan ere, industrializazio-fasean, inbertsio handiak behar izaten dira. Horregatik, funtsezkoa da startupak laguntzea hazkunde-fasean, Nafarroan, osasunaren sektoreko enpresa-egitura indartsua lortze aldera. Gainera, egitura-enpresa handiagoa sortu behar da, eskualdea benetako Osasun Kluster gisa definitzen duena eta honakoak bezalako zeharkako diziplinak uztartzen dituena: *farma*, *medical device*, osasun digitala, *biotech*, etab.

Modu sistematizatuan babestu behar dira berrikuntza irekiko prozesuak: sektore zehatz bateko enpresek balizko hornitzaileak diren startupen artean jarduera berritzailea sor dezaketen erronkak abiaraztea edo iragartzea erraztea, sektoreko jarduera nagusiaren berezko teknologietan edo periferiako edo zeharkako teknologietan.

Emakumeek teknologia altuko eta ertaineko sektoreekin lotuta garatutako ekimen ekintzaileak gizonezkoek sektore horietan garatutako ekimenen % 50 dira, bai hasierako fasean, bai finkatutako enpresetan. Beraz, egoera hori aztertu beharko da.



25M – OINARRI TEKNOLOGIKOKO ENPRESA BERRIENTZAKO LAGUNTZAK MANTENTZEA ETA INDARTZEA

Finkatzea eta egonkortzea “Oinarri teknologikoko enpresa berritzaileak sortzeko eta finkatzeko laguntzen” lerro berria, honakoarekin lotutako gastuak finantzatzuz: langileak; enpresaren jardueraren garapenarekin lotutako prestakuntza; azoketara joatea erakusketari gisa; prototipoak egitea; haztegi/inkubagailuen kuotak; lokalen alokairua; patenteen erregistroa, etab. Hain zuzen ere, Oinarri Teknologikoko Enpresa berrien ezaugarriak hauek dira:

- Bere jarduera ikertzaile eta langile teknologiko kualifikatuen lanean oinarritzen da.
- Bere negozio-estrategia teknologien garapenean eta erabilera intentsiboan oinarritzen da.
- Bere enpresa-jarduerak produktu, zerbitzu edo prozesu berriak merkaturatzea ahalbidetu beharko du, bere I+Gren ondorioz sortutako ezagutza txertatzen dutenak edo unibertsitateek, teknologia-zentroek edo ikerketa-zentroek garatutakoa txertatzen dutenak.

Ekintza positiboko irizpideren bat gehitu ahalko da sustatzaileak emakumezkoak direnean, enpresen sorkuntzan dagoen arrakala murrizte aldera.

26M – ENPRESA-BULTZADA OINARRI TEKNOLOGIKOKO ENPRESA BERRIETAN

Aplikatzea Nafarroako Enpresen eta Berrikuntzaren Europako Zentroak (CEIN) kudeatutako Impulso Emprendedor Programaren ideia oinarri teknologikoko enpresa berriak sor ditzaketen proiektuei. Impulso Emprendedor lankidetzeta publiko-pribatuko programa bat da eta enpresa-proiektuak bultzatzen ditu, azelerazio-programa baten bidez eta enpresa kolaboratzaileen babesaren bidez, ekarpen ekonomikoa eta *mentoringa* eskainiz.

- *Mentoring*-lana I+G+b arloko kudeaketan eta eremuan eta enpresa-kudeaketaren eremuan oinarrituko da.
- Hautatzeko irizpidea negozio-eredua eta bere disrupzio-potentziala izango da.
- Ekintza positiboko irizpideren bat gehitu ahalko da sustatzaileak emakumezkoak direnean, enpresen sorkuntzan dagoen arrakala murrizte aldera.

27M – BERRIKUNTZA IREKIKO PROZESU SISTEMATIZATUAK STARTUPEKIN

Erraztea sektore zehatz bateko enpresek balizko startup hornitzaileen artean jarduera berritzailea sor dezaketen erronkak abiaraztea edo iragartzea, bai sektoreko jarduera nagusiaren berezko teknologietan, bai teknologia periferikoetan edo zeharkakoetan:

- Finkatutako enpresen eta startupen (konponbideen hornitzaileak) arteko lankidetzak sustatzea, berritzeko (berrikuntza irekia) eta Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien egitura finkatzeko beste bide bat bezala.

- Aplikatzea beste sektore batzuetan Sodenaren Orizont azeleragailuak nekazaritzako elikagaien startupetan aplikatutako eskema.

28M – “SINAI SPIN-OFF” EDO “NAFARROA SPIN-OFF” ZIGILUA

Ematea zigilu bat SINAI eragileek sortutako “*spin-off*” enpresei edo Nafarroako enpresei, bere jarduera nagusia I+Gko atazak badira. Horrela, tratu bereizia jasoko dute Nafarroako Gobernuaren laguntzei dagokienez, esaterako:

- Lehenetasun gehigarria ebaluazio-baremoetan I+G+b arloko proiektuentzako laguntzetan.
- SIESS Sistemaren (*Scientific Infrastructure & Equipment Sharing System of Navarra*) instalazioen erabilera eta/edo SINAI zentroen zerbitzuetarako sarbidea, prezioan hobariak aplikatuz.
- Intentsitate handiagoa oinarri teknologikoko enpresa berritzaileentzako foru-laguntzetan.
- Zenbateko handiagoa I+G+bko kenketan, kenketa-eskubideak hirugarrenei lagatzekotan.

29M – INBERTSIO-FORU SEKTORIALAK

Identifikatzea, hautatzea eta babestea inbertsio-serie handiagoetarako (ez hainbeste hazi-kapital) finantziario pribatua behar duten tokiko startupak hedatzeko proiektuak, tokiko tresnekin batera hedapen-txandetan inbertituko duten inbertsiogileak erakartzea lortuz:

- Sodenak baterako inbertsioa egitea hautatutako enpresa-proiektuetan, elementu bereizgarri gisa, sindikatutako inbertsioa erakartzeko arrisku-kapitaleko entitate inbertsiogile pribatuekin.
- Aldizka antolatzea inbertsio-foru sektorialak, Nafarroako S4 Estrategiaren lehenetasun tematikoekin bat eginez, kapital-arriskuko entitate inbertsiogile pribatuak erakartzeko eta horiek Nafarroako Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrien hedapen-faseen inbertsioan parte hartzeko (SODENArekin, ASCRIrekin eta Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren INNVIERTE Programarekin batera).

6.11 HERRITARREI KULTURA ZIENTIFIKO, TEKNOLOGIKO ETA BERRITZAILEA HEDATZEKO NEURRIAK

Zientzia eta Teknologiari buruzko 15/2018 Foru Legeak haxe sustatzen du bere xedeen artean: prestakuntza ikasketa zientifiko-teknikoetan, arreta berezia jarriz emakumezkoek STEM ikasketetara duten sarbidean; ezagutza zientifikoa herritar guztietara hedatzea eta herritarren ezagutzarako sarbidea, ondasun publiko kolektiboa baita.

Helburua da gizarteak zientziaren, ikerketaren eta berrikuntzaren balioari dagokionez duen pertzepzioa hobetzea, garapen ekonomikoaren eta sozialaren eta ingurumen-babesaren eragile direlako. Halaber, bultzatu nahi da gizarte zibilaren parte-hartzea Nafarroako I+G+b arloko Sistematan.

Hori lortzeko, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) exekuzioko eragileen Entitate Berezi eta Koordinatzailetzat sailkatutako SINAI eragileek gizartearen eta zientziaren arteko lotura indartzeko jarduerak egiten dituzte.

Ekintza horiek bere webguneen bidez egindako hedapenarekin eta unibertsitateek, Nafarroako Gobernuko departamentuek eta enpresek modu zehatzean burututako ekintzekin osatzen dira.

[“Foco Aditech”](#) azterlanak agerian utzi du Nafarroako gizarteak aitortzen duela eskualdeko erkidego zientifiko eta teknologikoaren garrantzia, paper pasiboa jokatuz I+G+b arloko inplikazioan.

Herritarrak eskualdeko I+G+b arloan rol aktiboa edukitzearen garrantziaz kontzientziatzeko, 2021-2025erako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean, beharrezkoa da aurreko urteetan burututako ekintzekin jarraitzea, herritarren artean finkapen- eta dibulgazio-maila handiagoa lortzeko.

Horretarako, beharrezkoa da esfortzu handiagoa egitea Nafarroako I+G+b ekosistemaren jardueren dibulgazio-lanetan eta konexio handiagoa sustatzea hezkuntza-kolektiboekin, hedabideekin eta administrazio berarekin, herritarrekiko lotura indartze aldera.



JARRAITUTASUNA POSITIBOKI BALORATUTAKO I+G+b ARLOKO KULTURA ZIENTIFIKOA HEDATZEKO ETA SUSTATZEKO NEURRIETAN

Gizartean zientziaren eta teknologiaren lorpenak eta aurrerapenak hedatzeak STEM bokazioak areagotzea errazten du: teknologia ikertzen eta garatzen duten pertsonen aintzatespena, gai horiek ematen duten gizarte-balioa ikusaraziz. Genero-ikuspegia txertatuz, balio erantsiaren sorkuntzan eta, zehazki, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren zeharkako kategoria gisa.

Proposatzen da zientzia eta gizartearen arteko lotura sustatzeko abian jarritako jardurekin jarraitzea, baita irakaskuntza zientifiko-teknikoekin eta berdintasuna sustatzeko mekanismoekin ere (bere eraginkortasuna aintzat hartuz). Aurrekoaren adibide dira honako hauek:

- [Science Ekaitza](#) Azoka, zientzia eta teknologia hurbiltzeko gizarte osora modu orokorrean.
- [Planeta Stem Programa](#) eta [21 Kodea](#), STEM diziplinak irakasteko eta bokazio zientifikoak sustatzeko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko [Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedra](#), STEM titulazioak sustatzeko emakumezkoen artean.
- Prestakuntza-ekintzak eta [konferentziak](#), I+G+b arloko proiektuetan genero-dimentsioa txertatzea sustatze aldera.

- [Cosmos Deialdia](#). Laguntzak kultura zientifikoa sustatzeko, Nafarroako I+G+b hedatzeko eta STEM bokazioak bultzatzeko, Nafarroako I+G+b Sistemako (SINAI) Erregistroan ziurtatutako entitateentzat eta elkarteentzat.

Zientziaren gaineko ulermen publikoa indartzeko eta herritarrak inplikatzeko eskualdean burututako ikerketako, ezagutzaren sorkuntzako eta aurrerapen teknologikoko jardueretan, beharrezkoa da komunikazioa ulerterraza eta herritarrentzat hunkigarria izatea. Hori lortzeko, hauxe proposatzen da:

- SINAI eragileen ikerketa-erkidegoa prestatzea publiko guztientzako zientzia eta teknologiko komunikazio-tekniketan, ulermena eta gehiago jakiteko nahia bultzatuz.
- Herritarrek eskari teknologikoa sortzeko duten gaitasunaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak egitea, eskualdeko I+G+b arloko jardura bultzatuz.

PRESTAKUNTZA GIZARTEAN I+G+B GENERO- ETA BERDINTASUN-IKUSPEGIAREKIN SUSTATZEKO

Genero-dimentsioa bultzatzeko ekimenak sustatuko dira, bai ikerketaren diseinuan, bai horren emaitzen analisian. Horretarako, hauxe nahitaezkoa izango da:

- Enpresak trebatzea genero-ikuspegia I+G+bn aplikatzearen kontzeptuaren inguruan.
- Berriazko sentsibilizazio-kanpainak egitea.

“SINAI ERAGILEA” EZAGUTZEA

Gizartearentzat, I+G+b arloko kultura-eragilerik nagusietako bat hezkuntza eta informazioa dira. SINAI eragileen, bere potentzialaren, jardueren eta ikerketa-emaitzen inguruko ezagutza sustatzeko, proposatzen da honakoa antolatzea.

- **“SINAI Eragilearen” Eguna:** herritarrei aukera ematen zaie ikerketa-jardura ezagutzeko, barrutik eta ate irekien egunetan esperimendatuz, aukera bat izan daitekeena urteko I+G+b arloko proiektuen emaitzak ezagutzera emateko.
- **Udako campus zientifikoak:** astebeterako bekak ematen zaizkie Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gazteei, egonaldiak egin ditzaten unibertsitateetan edo SINAI eragileekin, ikertzaileek zentroko irakasleekin elkarlanean zuzendutako zientziara hurbiltzeko proiektuetan parte har dezaten.

SAILEN ARTEKO LANKIDETZA I+G+b SUSTATZEKO

Ikuspegi eta gaitasun desberdinak integratzearen bidez, efektu biderkatzaileak lor daitezke mezu baten eraginean. Horretarako, proposatzen da baterako lankidetzarako espazioak

ezartzea Nafarroako Gobernuko departamentu desberdinen artean, horrela I+G+b hedatzeko. Hauen arteko lankidetzak proposatzen da:

- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua eta Unibertsitatea. Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Unibertsitate Masterreko eta Irakasle Eskolako ikasleek hezkuntza-teknologiari lotutako irakaskuntzarako tresna teknologikoak ezagut ditzaten, besteak beste, EDUCA eta ikaskuntzako, programazioko, robotikako eta bestelako ingurune birtualak, gaitasunak lantzeko eta curriculumeko ezagutzak ikasteko bitarteko gisa.
- Hezkuntza Departamentua eta SINAI eragileak, lehen eta bigarren hezkuntzako etapetan eduki teknologikoen aurkezpena errazteko, zehazki, honakoa antolatuz: zentroetarako bisitak; esperimentu sinpleen bideoak eta emakumezko ikertzaileen *mentoringa*, emakumezko ikasleen artean erreferente izan daitezen.
- Hezkuntza Departamentua eta Eskubide Sozialetako Departamentua, teknologia berriak, programazioa eta robotika erabiltzeko, integrazio-zailtasunengatik, prestakuntza-ibilbidetik kanpo geratzen diren baina talentua duten ikasleen interesa erakartzeko jarduera gisa.
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua eta Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentua, zientziak, teknologiak eta berrikuntzak gizartearen bizibaldintzak hobetzeko duten garrantzia hedatze aldera. Nafarroako enpresen hautaketa batek I+G+b arloko proiektuak zein horiei esker lortutako hobekuntza aurkezten ditu Lehen zein Bigarren Hezkuntzako ikasleen aurrean.
- Herritarrekiko Harremanetako Departamentua (Kanpo Ekintzako Zuzendaritza Nagusia) eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia, ikuspegi europarra txertatzeko zientzia, teknologia eta berrikuntzako ekintzetan.

7. GOBERNANTZA

7.1 DEFINIZIOA

2021-2025erako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legearen pean egin den lehenbiziko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana izango da eta, gainera, COVIDaren osteko une historikoan egin da, zeinean I+G+bk are garrantzia handiagoa duen, eskualdearen susperraldi ekonomikorako eta ongizaterako. Testuinguru horretan, agerian geratu da funtsezkoa dela Nafarroako zein munduko ekosistemaren premietara egokitzen diren datuetan oinarritutako mekanismo arinak edukitzea.

Gobernantza-eredua hiru maila hauetan egituratu da:

- **Plangintza eta erabakia:** Presidentetza; Departamentuarterko Batzordea eta Batzorde Betearazlea.
- **Kontsulta eta egikaritzapena:** Nafarroako I+G+b arloko Aholku Batzordea; Nafarroako Berrikuntza Behatokia eta Aditech.
- **Enpresak eta gizartea:** Berrikuntza-ekosistemak.

PRESIDENTETZA

Gobernuko presidentea izango da Nafarroako agintaritza eskudun gorena eta honakoen lidergoa hartuko du bere gain: Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana; I+G+bko estrategia; eskualde-politiken koordinazioa eta horiek nazio eta Europa mailako politikekin zein Nafarroako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin lerrokatzea ere.

DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA

Departamentuarterko Batzordea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak zuzenduko du. Horrez gain, batzordeko kide izango dira bere eskumenen barruan berrikuntza duten departamentuetako kontseilariak. Hain zuzen ere, berrikuntzatzat hartuko da balioa sortzen duen (ez soilik ekonomikoa) ezagutzan oinarritutako (ez soilik zientifikoa) aldaketa oro (ez soilik teknologikoa). Bere eginkizuna izango da I+G+b arloko politikak ezartzea; lankidetzak akordioak sustatzea eta Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren hedapena ahalbidetzeko esparru juridikoak eraikitzea.

NAFARROAKO I+G+B ARLOKO AHOLKU BATZORDEA

Nafarroako I+G+b arloko Aholku Batzordea parte-hartzerako eta kontsultarako kide anitzeko organoa da eta bere eginkizuna izango da Departamentuarterko Batzordea orientatzea planteatutako helburuak lortzeko jarduketara eta gomendioekin, baita Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana genero-ikuspegiarekin dinamizatzeko proposamenekin ere.

BATZORDE BETEARAZLEA

Batzorde Betearazlea I+G+b arloko politikak sustatzen dituzten departamentuetako zuzendaritza nagusiek osatuko dute eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak zuzenduko du. Hauek izango dira bere eginkizunak:

- Planaren neurriak egikaritzea.
- Sail arteko batzordera joatea.
- Eskualde, nazio eta Europa mailako gainerako indarreko estrategia eta planekin koordinatzea.

Nafarroako Berrikuntza Behatokia.

Nafarroako Berrikuntza Behatokia organo teknikoa da eta bere eginkizuna izango da Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean elkarri eragiten dioten eragile guztiak komunikatzea eta kohesionatzea.

ADITECH

ADitechek erabakitze-organoek agintzen dizkieten plana koordinatzeko dinamizatzeko lanak burutuko ditu..

BERRIKUNTZA-EKOSISTEMAK

Bere interesa eta jarduera I+G+b arloan dituen Nafarroako komunitatearen topagunea izango da. ADitechek kudeatuko du eta hauek izango dira kideak: CEN, ANEL, S4ko Klusterrak, enpresak eta herritarrak, parekotasun- eta aniztasun-irizpide batekin parte hartuko dutenak.

7.2 EREDUA ETA PRINTZIPIOAK

Planteatu da **sareko gobernantza-eredu irekia eta kolaboratiboa**, Nafarroako berrikuntza-ekosistemaren parte-hartzearekin eta herritarrak funtsezko eragile direlarik. Gobernantza-eredu horrek eta bere tresnek Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planarekiko elkarrekintza izango dute; plana etengabe aldatu eta hobetu egingo da, ezagutzaren, industriaren eta gizartearen premietara egokitzeko, tokian jardunez baina ikuspegi global batekin.


Hiru printzipio hauetara bideratutako gobernantza-eredua definitu da:

1- Emaitzetara bideratuta: argitasuna eta adostasuna sistemako entitate parte-hartzaile guztien artean lortu nahi diren emaitzei eta horiek lortzeko neurriei dagokienez.

2- **Lankidetz**a: egitura bat eta tresnak ekosistemako erakunde parte-hartzaileen arteko komunikazioa eta lankidetz

3 - Planaren egikaritzapenean **gardentasuna**, **etengabeko hobekuntza** eta **kontu-ematea** sustatzeko konpromisoa.

Definitutako organoen osaerak gizonezkoen eta emakumezkoen ordezkaritza orekatuaren printzipioa hartuko du kontuan (17/2019 Foru Legearen 16. artikulua).



7.3 ANTOLAKUNTZA

Hauk dira organo desberdinek izango dituzten bilerak:



8. AGINTE-KOADROA ETA BEHATOKIA

8.1 AGINTE-KOADROA

2021-2025erako Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren adierazleak xede bikoitzarekin planteatu dira:

- Baliagarriak izatea Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren segimenduan inplikaturako pertsona eta entitate guztientzat, horri dagokionez abian jarritako helburu, tresna eta programa guztien arteko doitzea ebaluatzeko eta bermatzeko; lortutako emaitzak aztertzeke eta betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak definitzeko.
- Informazio irekia ematea herritarrei, Nafarroako berrikuntzaren egoeraz eta neurri publikoen eraginkortasunaz jabetzeko.

Zehazki, 15/2018 Foru Legeak zuzenean ezarritakoez gain, bi adierazle-mota definitu dira, bereizitako bi helburu dituztenak:

- **Emaitza-adierazleak:** Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren helburuak betetzearen ondorioz lortutako emaitzak aztertzeke.
- **Eragin-adierazleak:** oinarri kuantitatiboa izateko Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak lurraldean duen itzuleraren ebaluazioan.

Foru Legeari lotutako adierazleak	2020ko balioa	2022ko balioa	2025eko balioa
Inbertsio publikoaren % unibertsitateetan (NAOen gainean)	1,88	2,00	2,00
Inbertsio publikoaren % I+G sustapenean (NAOen gainean)	1,45	1,60	1,75
EBko eta Estatuko Ekarpenearen % Nafarroako I+Gn (NAOren gainean)	1,96	1,96	1,96
Inbertsio publikoaren % I+G Deskontu fiskaletan (NAOen gainean)	0,71	0,83	1
Unibertsitateetan, sustapenean eta deskontu fiskaletan egindako inbertsio publikoaren gutzizkoaren % gehi EBk eta Estatuak Nafarroako I+Gri egindako ekarpenak (NAOren gainean)	6,00	6,39	6,71
Unibertsitateetan, sustapenean eta zerga-deskontuetan egindako inbertsio publikoaren gutzizkoaren % (BPGren gainean)	0,73	0,8	0,9
I+Gko inbertsioaren % BPGrekiko	1,9	2,11	2,60

Emaitzen adierazleak	NZTBPre hasiera	2022ko balioa	2025eko balioa
Argitalpen zientifikoak lehen kuartilean	63,3 (2019)	69,96	79
Nazioartean aipatuena diren top %10ean dauden argitalpen zientifikoak	18,10 (2019)	19,91	22,4
Nazioarteko lankidetzaren bidezko argitalpen zientifikoak	47,9 (2019)	52,69	59,39
EPO patenteen eskaera-kopurua	71 (2020)	78,1	88,75
PCT patenteen eskaera-kopurua	26 (2020)	28,6	32,5
Enpresa berritzaileen ehunekoa	20,2 (2019)	22,22	25,25
Horizonte Europako proiektuetako partaidetza-kopurua	56	60	73
Oinarri Teknologikoko Enpresa kopurua	940	945	952

Eraginaren adierazleak	NZTBPre hasiera	2022ko balioa	2025eko balioa
I+Gko langileen ehunekoa (EJP edo DOB) biztanleria landunarekiko	1,72 (2019)	1,89	2,10
Ikertzaileen ehunekoa I+Gko langileekiko	60,7 (2019)	66,77	74
I+Gn diharduten emakumeen ehunekoa	41,45	43	46
Teknologia ertain eta altuko produktuetan egindako esportazioen %	66,35	66,6	67,35
Fakturazio osoaren gaineko produktu berrien salmenta	0,21 (2019)	0,23	0,25
Graduko STEM titulazioetako ikasleen %	Guztira: %29,5; Gizonak: %41,4; Emakumeak: %20,0	Guztira: %31; Gizonak: %41,4; Emakumeak: %24,0	Guztira: %34; Gizonak: %41,4; Emakumeak: %30,0

2. eranskinean, adierazleak kalkulatzeko metodoa jasotzen da. Adierazle horiek, ahal den neurrian, sexuaren arabera banatuko dira planaren egikaritzapenean zehar.

8.2 NAFARROAKO BERRIKUNTZA BEHATOKIA

Nafarroako Berrikuntza Behatokia Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentura atxikitako organo teknikoa da; bertan, Nafarroako berrikuntza-ekosistemako eragile guztiek parte hartuko dute, zehazki, alderdi bikoitz honekin: I+G+b arloko informazio-sortzaileak eta erabiltzaileak.

Nafarroako eragile guztiak komunikatzeko eta kohesionatzeko eginkizuna izango du eta, horrez gain, bere I+G+b arloko jarduerak nazioartean hedatzea erraztu beharko du.

Nafarroako Berrikuntza Behatokiak Nafarroako berrikuntzarekin lotutako interes-taldeei emango die estaldura.

17/2019 Foru Legearen 16. artikulua gizonen eta emakumeen arteko ordezkartza orekatuaren printzipioa xedatzen du kide anitzeko organoetarako; hori aplikatuz, Nafarroako Berrikuntza Behatokiaren osarak gizonen eta emakumeen arteko ordezkartza

orekatua izango du. Horrez gain, bere eraketan, aztertuko da interesgarria ote den Nafarroako Berrikuntza Behatokiaren eta ADITechen Genero-dimentsioarekin Ikertzeko Unitatearen arteko konexioa ezartzea.

Nafarroako Berrikuntza Behatokiak honakoek osatutako talde tekniko baten aholkularitza jasotzen du: batetik, I+G+bko Zerbitzua; Nafarroako Estatistika Erakundea-Nastat; S4ren Proiektu Estrategikoen Zerbitzua eta Errealitate Sozialaren Behatokia eta, bestetik, S4 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren diseinua eta ezarpena bultzatzeaz arduratzen diren (Sodena) eta SINAIko exekuzio-eragileak koordinatzen dituzten entitateak (Aditech), hain zuzen ere, horien guztien arteko sinergiak lortze aldera eta inplikaturako eragile guztien lerrokatze egokia ziurtatze aldera.



EDUKIAK

Hauek izango dira Nafarroako Berrikuntza Behatokiaren edukiak:

- AURKEZPENA
 - Behatokiaren helburuak
 - Osaera
 - Gobernantza

- ENPRESA
 - Baliabideak eta laguntzak
 - Proiektuen bilatzailea
 - Sariak eta goraipamenak
 - Berrikuntzaren Erosketa Publikoko proposamenak

- DATUAK
 - Testuinguru-adierazleak
 - Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren adierazleak eta aginte-koadroa
 - I+G+b Nafarroan
 - SINAI eragileen adierazleak
 - Enpresen adierazleak
 - S4 adierazleak
 - Genero/sexu adierazleak

- I+G+B NAFARROAN
 - Araudi- eta estrategia-esparruak
 - Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana eta urteko planak
 - Joera zientifiko-teknikoak
 - Txostenak eta azterlanak
 - Erkidegoko talentuaren mapa

- SINAI
 - Baliabideak eta laguntzak
 - SINAI-Zerrenda eta gaitasunak
 - Berrikuntza Ekosistemak
 - Azpiegiturak
 - Berrikuntza Digitaleko Poloa
 - Proiektuen bilatzailea
 - Sariak eta goraipamenak

- HERRITARRAK
 - Baliabideak eta laguntzak
 - SINAIren dibulgazioa
 - Erakundeen arteko ezagutza-sareak
 - Dibulgazio zientifiko eta teknikorako espazioen sarea
 - “La ciencia en casa” Ekimenen inguruko informazioa
 - NZTBP Kontu-ematea:
 - Parte hartzeko espazioa (lagundu hobetzen)

- LOTURAK ETA SAREAK
 - Autonomia-erkidegoko I+G+b arloko behatokiak
 - Erreferentziazko nazio-mailako erakundeak
 - Erreferentziazko Europa mailako erakundeak
 - Nafarroako entitateak-egiturak, IRIS, Topaketa-foro iraunkorrak, etab.

- NAFARROAKO GOBERNUAREN BESTELAKO BERRIKUNTZAK

Berrikuntza sektorialak Nafarroako Gobernuko departamentuetan

- ALBISTEAK-AGENDA

- Albiste zientifiko-teknikoak
- Genero-albisteak zientzian eta teknologian
- Nafarroako I+G+b arloko ekitaldien agenda
- Kontaktua- Iradokizunak

HEDAPENA ETA BILAKAERA

Behatokiaren hedapena kronograma honen arabera egingo da:

- Behatokiaren definizioa. 2021eko 4. hiruhilekoa.
 - Talde teknikoaren eraketa
 - Edukien proposamena
 - Loturen eta sareen definizioa
- Hedatzea eta abian jartzea. 2022ko 1., 2. eta 3. hiruhilekoak.
 - Loturen eta sareen ezarpena
 - Informazio-iturrien eta datuen definizioa
 - Datu-plataformaren sorkuntza
 - Albisteen eta agendaren biltegiaren garapena.
 - Behatokiaren komunikazioa
- Mantentzea eta bilakaera. 2022ko 4. hiruhilekoa.
 - Txostenak eta azterlanak egitea
 - Talde teknikoarekiko koordinazioa
 - Sareekiko koordinazioa
 - Edukiak mantentzea eta hobetzea

9. AURREKONTUA

9.1 NAFARROAKO GOBERNUAREN I+G+B ARLOKO INBERTSIOA AURREKONTU OROKORREKIN ETA NAFARROAKO BPGDREKIKO

Nafarroako Gobernuaren I+G+b arloko inbertsio publikoko helburuak Zientzia eta Teknologiar buruzko 15/2018 Foru Legeak horri dagokionez ezartzen dituen portzentajezko xedeek baldintzatzen dituzte, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren ezarpen-adian. Helburuak 2025eko denbora-horizonterako planteatzen dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei eta Nafarroako BPGdri dagokienez, alegia.

Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren konpromisoa da foru lege horretan ezarritako I+G+b arloko inbertsio publikoko ehunekoetara heltzea. Jarraian, kalkulu batzuk aurkezten dira, milioi eurotan; kalkuluak ez dira aurrekontu-konpromiso bat, baizik eta proiektioak, portzentajezko konpromisoek eragin litzaketan esfortzuaren eta garrantzia ekonomikoaren inguruko xede orientagarria dutenak.

Foru Legeak unibertsitateetan eta I+Gren sustapenean I+G arloko inbertsio publikoa egiteko ezarritako portzentajezko helburuak jada lortu dira eta aurretiaz gainditu ere bai. Horrenbestez, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei dagokienez, legean aurreikusitakoak baino apur bat handizaleagoak diren I+G arloko inbertsio-helburuak planteatzen ditu.

Nafarroako Aurrekontu Orokorren gainean (NAO)	Foru Legearen Helburuak Datu erreala			NZTBPren helburuak				
	2020	2025	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Unibertsitateen % NAOen gainean	1,5	1,5	1,88	2,00	2,00	2,00	2,00	2,00
I+G+b-ren sustapenaren % NAOen gainean	1,35	1,60	1,45	1,58	1,60	1,65	1,7	1,75
Deskontu fiskalaren % NAOen gainean	1,00	1,00	0,71	0,77	0,83	0,88	0,94	1,00
Nafarroako Gobernuaren ekarpenaren %en batura NAOen gainean	3,85	4,10	4,04	4,35	4,43	4,53	4,64	4,75
NAOen gaineko Unibertsitateen %aren estimazioa M€tan			69,44	73,70	78,38	80,29	83,90	87,68
NAOen gaineko I+G+b-ren sustapenaren %aren estimazioa M€tan			53,61	58,07	61,47	66,24	71,32	76,72
NAOen gaineko Deskontu fiskalaren %aren estimazioa M€tan			26,27	28,30	31,88	35,33	39,43	43,84
NAOen gaineko Nafarroako Gobernuaren ekarpenaren %en baturaren estimazioa M€tan			149,32	160,07	171,73	181,86	194,65	208,24
Nafarroako BPGaren arabera	Foru Legearen Helburuak Datu erreala			NZTBPren helburuak				
	2020	2025	2020	2021	2022	2023	2024	2025
Sustapena + Unibertsitateak + Fiskalak % estimazioa Nafarroako BPG gainean	0,85	0,90	0,73	0,76	0,80	0,83	0,87	0,90
Sustapena + Unibertsitateak + Fiskalak %aren estimazioa M€tan			149,32	160,07	171,73	181,86	194,65	208,24

2020-2021 ekitaldiko I+G+b Sustapenaren datuak kodifikazio funtzionala duten partidak hauek batuz kalkulatu dira: Garapen Ekonomiko eta Enpresariareko eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuetako 4673 (Ikerketa eta garapen teknologiko industrial); Osasun Departamentuko 4651 (Osasun ikerketa) eta Landa Garapeneko Departamentuko 4674 (Nekazaritza eta basogintzako ikerketa eta esperimentazioa).

Berdez, Nafarroako 2020ko eta 2021eko Aurrekontu Orokorrei dagokienez kalkulaturako datu errealak agertzen dira (Nafarroako Aurrekontu Orokor ez-finantzazioak, ezta administrazioen arteko transferentziarik ere). Gainerakoak, kalkuluak dira, ehunekotan eta milioi eurotan jasotzen direnak. Horiek kalkulatzeko, Nafarroako Aurrekontu Orokorren 2022., 2023., 2024. eta 2025. urteetarako zenbatespena hartu da kontuan, aurreko urteetako Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuaren batez besteko igoeran oinarritzen dena.

9.2 I+G+b ARLOKO INBERTSIO PRIBATUAREN KALKULUA

I+G+b arloko inbertsio pribatua Europar Batasunak ezarritako helburuaren arabera kalkulatu da, Zientzia eta Teknologiari buruzko Foru Legean ere islatu dena: 2030ean, I+G arloko inbertsio publiko-pribatua Nafarroako BPGdren % 3ren baliokidea izatea. Horretan, inbertsio publikoa BPGdren herena edo %1a izango da eta inbertsio pribatua, aldiz, BPGdren bi heren edo % 2a.

Kalkulatu da, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren denbora-horizontean, I+G arloko inbertsio pribatuak progresioa izango duela BPGdrekiko; kalkulua egiteko, kontuan hartu dira foru legeak eta Nafarroako S4 estrategiak 2025erako ezarritako BPGdrekiko I+G+b arloko inbertsio-helburuak.

Nafarroako BPGaren arabera	Datu errealak		NZTBPren helburuak			
	2020	2021	2022	2023	2024	2025
I+Gko inbertsio pribatuaren % estimazioa Nafarroako BPGaren gainean	1,06	1,19	1,32	1,44	1,57	1,70
I+Gko inbertsio pribatuaren estimazioa M€tan	217,03	240,90	267,81	294,09	326,36	362,28

9.3 AGE ETA UE FUNTSEN BILKETA

Zientziari eta Teknologiari buruzko 15/2018 Foru Legeak Estatuko Administrazio Orokorretik eta Europar Batasunetik I+G+b arlorako funtsak erakartzeko portzentaje-helburuak zehazten ditu, Nafarroako Gobernuak berezko baliabideekin I+G+b arloan egiten duen inbertsio publikoa osatze aldera.

Halaber, Foru Legeak Estatuko eta Europako finantziarioari buruz ezarritako **portzentajezko helburuak** nabarmen gainditu egin dira 2020an. Horregatik, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren aldirako, ezartzen da dagoeneko lortutakoaren antzeko AGE eta UE ekarpen-ehunekoa mantentzeko helburua, zehazki, Nafarroako Aurrekontu Orokorrekiko.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan (NAO)	Foru Legearen Helburuak		Datu errealak		NZTBPren helburuak		
	2020	2025	2020	2021	2022	2023	2024
Nafarroako I+G+b-rako Estatuko eta EBko ekarpenen % NAOen gainean	0,4	0,4	1,96	1,96	1,96	1,96	1,96
Nafarroako I+G+b-rako Estatuko/EBko ekarpenen %aren estimazioa M€tan NAOen gainean.			72,54	72,05	75,29	78,68	82,22

Iturriak: Diru-laguntzen Datu-base Nazionala, CDTI.

9.4 AURREKONTU GLOBALAREN KALKULUA

Hurrengo taulan, multzokatuta jasotzen dira aurreko tauletan islatutako kalkuluak, milioi eurotan, hain zuzen ere, honakoari dagokionez: Nafarroako Gobernuaren I+G+b arloko inbertsio publikoa; inbertsio pribatua eta Estatuko Administrazio Orokorren eta Europar Batasunaren ekarpena Nafarroako entitateen I+G+b arloko jardueretarako, Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren ezarpen-aldian.

Aurretik adierazi den bezala, hurrengo taula ez da aurrekontu-konpromiso bat, baizik eta Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planetik ondoriozta litezkeen esfortzuaren eta garrantzia ekonomiko publiko eta pribatuaren kalkulu orientagarria.

2021-2025 NZTBPren Aurrekontu Orokorren estimazioa M€tan	NZTBPren helburuak				
	2021	2022	2023	2024	2025
Nafarroako Gobernuaren ekarpenaren %en baturaren estimazioa M€tan, NAOen gainean	160,07	171,73	181,86	194,65	208,24
I+Gko inbertsio pribatuaren estimazioa M€tan	240,90	267,81	294,09	326,36	362,28
I+G+b-rako Estatuko/EBko ekarpenen %aren estimazioa M€tan, NAOen gainean.	72,05	75,29	78,68	82,22	85,93
Urteko aurrekontua guztira M€tan	473,02	514,83	554,63	603,23	656,45

1. ERANSKINA. ARAUDI-ESPARRUAK ETA LOTUTAKO PLANAK

Hauek dira dokumentu honetan aipatutako araudi-esparru eta plan nagusiak:

- Nafarroako Gobernua: [Zientzia eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legea](#).
- Nafarroako Gobernua: [Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2017-2020](#).
- Nafarroako Gobernua: [Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea](#) 2019
- Nafarroako Gobernua: [S4 Nafarroako Espezializazio Adimendunaren Estrategia 2021-2027](#)
- Nafarroako Gobernua: [Nafarroaren 2030 Agenda](#).
- Nafarroako Gobernua: [Plan Reactivar Navarra / Nafarroa Suspertu Plana 2020-2023](#)
- Nafarroako Gobernua: [Next Generation- Nafarroako Estrategia Digitala 2030](#). 2020.
- Nafarroako Gobernua: [Next Generation- Navarra/Nafarroa Green](#). 2020
- Nafarroako Gobernua: [Next Generation- Nafarroako Lurralde eta Gizarte Kohesioaren Estrategia](#). 2020
- Nafarroako Gobernua: [2021-2024 Kanpo Ekintzaren Plana](#)
- Espainiako Gobernua: [Espainiaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Estrategia 2021-2027](#)
- Espainiako Gobernua: [Ikerketa Zientifiko eta Teknikorako eta Berrikuntzarako Estatuko Plana 2021-2023](#).
- Espainiako Gobernua: [Zientzia eta Berrikuntzarako Talka Plana](#). 2020.
- Espainiako Gobernua: [Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana](#).
- Espainiako Gobernua: [Zientziari, Teknologiari eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen aldaketa](#).
- Europako Batzordea: [Urte Anitzeko Finantza Esparrua 2021-2027](#).
- Europako Batzordea: [2021-2024 Horizon Europe Plan Estrategikoa](#).

2. ERANSKINA. ADIERAZLEEN KALKULUA

Foru Legeari lotutako adierazleak	2020ko balioa	2022ko balioa	2025eko balioa	Kalkulatze metodoa	Iturria	Unitatea	Iruzkinak
Inbertsio publikoaren % unibertsitateetan (NAOen gainean)	1,88	2,00	2,00	Zenbakitzaila: NUP eta Tuter eta Iruñeko UNED zentroyen finantziario-hitzarmena Izendatzailea: Nafarroako Gobernuaren aurrekontu gastu ez-finantziarioaren muga gisa (finantza-gasturik gabe – 8. eta 9. kapituluak, Estatuarekin hitzarmen ekonomikorik gabe – 40. artikulua, Toki Ogasunen funtsari ekarpenik egin gabe)	DUITD	%	Zientzia Legea 2030 Helburu: %1,6
I+G sustapenerako inbertsio publikoaren % (NAOen gainean)	1,45	1,60	1,75	Zenbakitzaila: 4651 (ikerketaren sanitarioa), 4674 (nekazaritza eta basogintzako ikerketa eta esperimentazioa), 4673 (ikerketa eta garapen teknologiko industrialak) kodeak dituzten aurrekontu partidak. Izendatzailea: aurrekoa.	DUITD	%	S4 adierazlea Zientzia Legea 2030 Helburu: 2%
Ebko eta Estatuko Ekarpeneren % Nafarroako I+Gn (NAOen gainean)	1,96	1,96	1,96	Zenbakitzaila: Nafarroako estatuko eta nazioarteko I+G+b programetan jasotako itzulerak Izendatzailea: aurrekoa	DCTI,SICTI	%	
Inbertsio publikoaren % I+G Deskontu fiskaletan (NAOen gainean)	0,71	0,83	1	Zenbakitzaila: I+G+b bidezko onura fiskalen aurrekontua Izendatzailea: aurrekoa	HTN	%	Zientzia Legea 2030 Helburu: %1
Unibertsitateetan, sustapenean eta deskontu fiskaletan egindako inbertsio publikoaren guztizkoaren % gehi EBk eta Estatuak Nafarroako +Gri egindako ekarpenak (NAOen gainean)	6,00	6,39	6,71		DUITD	%	Zientzia Legea 2030 Helburu: %5
Unibertsitateetan, sustapenean eta zerga-deskontuetan egindako inbertsio publikoaren guztizkoaren % (BPGren gainean)	0,73	0,8	0,9		DUITD	%	Zientzia Legea 2030 Helburu: %1
I+Gko inbertsioaren % BPGrekiko	1,9	2,11	2,60	Nastat kontsulta Informazio estatistikoa, zientzia eta teknologia, I+G jarduerak, adierazleak. I+G Gastuen Balioa (mila eurotan) BPGren gainean	NASTAT	%	S4 adierazlea Zientzia Legea 2030 Helburu: %3

Emaitzen adierazleak	NZTBPre hasiera	2022ko balioa	2025eko balioa	Kalkulatze metodoa	Iturria	Unitatea	Iruzkinak
Argitalpen zientifikoak lehen kuartilean	63,3 (2019)	69,96	79	Erakunde batek bere kategoriako lehen kuartilean (% 25) dauden aldizkarietan egindako argitalpenen ehunekoa	FECYT	%	https://services.ICONO.fecyt.es/in-dicadores/Paginas/default.aspx?id=99&idPanel=1
Nazioartean aipatuak diren top %10ean dauden argitalpen zientifikoak	18,10 (2019)	19,91	22,4	Bere arloko artikulua aipatuak diren % 10 bitzen duten argitalpen zientifikoaren ehunekoa	FECYT	%	https://services.ICONO.fecyt.es/in-dicadores/Paginas/default.aspx?id=175&idPanel=1
Nazioarteko lankidetzako bidezko argitalpen zientifikoak	47,9 (2019)	52,69	59,39	Herrialdetik kanpoko erakundeekin lankidetzan argitaratutako produkzioaren ehunekoa.	FECYT	%	https://services.ICONO.fecyt.es/in-dicadores/Paginas/default.aspx?id=114&idPanel=1
EPO patenteen eskaera-kopurua	71 (2020)	78,1	88,75	Europa bidezko Patente kopurua guztira (Konsulta 3 : Autonomia-erikidegoek OEPMn aurkeztutako Europako patentearen 6 eskaera, X urteko eskatzaile-motaren arabera).	OEPM	Unitateak	http://consultas2.oepm.es/ipstat/
PCT patenteen eskaera-kopurua	26 (2020)	28,6	32,5	PCT bidezko Patente kopurua guztira (Konsulta 4 : Autonomia-erikidegoek OEPMn aurkeztutako 6 patente eskaera, X urteko eskatzaile motaren arabera)	OEPM	Unitateak	http://consultas2.oepm.es/ipstat/
Enpresa berritzaileen ehunekoa	20,2 (2019)	22,22	25,25	Jarduera berritzailea duten enpresen ehunekoa inkestatutako enpresa guztietatik (enpresetako berrikuntzari buruzko inkesta, INE-NASTAT)	NASTAT	%	Enpresaren tamainaren arabera bereizita
Horizonte Europako proiektuetako partaidetza-kopurua	56	60	73		CDTI	Unitateak	
Oinarri Teknologikoko Enpresa kopurua	940	945	952		NASTAT		Goi eta erdi-goiko mailako teknologiko sektoreetan diharduten enpresak. Definizio horren ezaugarri nagusiak CNAEK ezarriak dira, DENAn identifikatutakoak.

Eraginaren adierazleak	NZTBPre hasiera	2022ko balioa	2025eko balioa	Kalkulatzeko metodoa	Iturria	Unitatea	Iruzkinak
I+Gko langileen ehunekoa (EJP edo EDP gaztelaniazko sigletan) biztanleria landunarekiko	1,72 (2019)	1,89	2,10	Nastat kontsulta Informazio estatistikoa, zientzia eta teknologia, I+G jarduerak, adierazleak. Biztanleria landunaren gaineko balio pertsonala (EJP gaztelaniazko sigletan)	NASTAT	%	Sektorearen (Administrazioa, Unibertsitatea, enpresak) eta generoaren (https://administracionelectronica.nava.rra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E) arabera berezita; S4 adierazlea
Ikertzaileen ehunekoa I+Gko langileekiko	60,7 (2019)	66,77	74	Kalkulua ehunekoetan. Zenbakitzailea: Ikertzaileen datua Izendatzailea: Sektoreen guztizko datua. (Nastat kontsulta Informazio estatistikoa, zientzia eta teknologia, I+G jarduerak, I+Gko langileak, I+Gko langileen bilakaera erlaitza)	NASTAT	%	Sektorearen (Administrazioa, Unibertsitatea, enpresak) eta generoaren (https://administracionelectronica.nava.rra.es/GN.InstitutoEstadistica.Web/informacionestadistica.aspx?R=1&E) arabera berezita
I+Gn diharduten emakumeen ehunekoa	41,45	43	46	Nastat kontsulta Informazio estatistikoa, zientzia eta teknologia, I+G jarduerak, adierazleak. I+Gko balio pertsonala (EJP gaztelaniazko sigletan), sexuaren arabera	NASTAT	%	
Teknologia ertain eta altuko produktuetan egindako esportazioen %	66,35	66,6	67,35	Zenbakitzailea: Teknologia altuko eta ertain-altuko produktu esportatuaren diru-balioa. Teknologia altuko eta ertain-altuko produktuak honako kode hauekin bat datoz Nazioarteko Merkataritazarako Saikapen Bateratua (CUCI gaztelaniazko siglen arabera) Erref. 3: 266, 267, 512, 513, 525, 533, 54, 553, 554, 562, 57, 58, 591, 593, 597, 598, 629, 653, 671, 672, 679, 71, 72, 731, 733, 737, 74, 751, 752, 759, 76, 77, 78, 79, 812, 87, 88 eta 891. Izendatzailea: Esportatutako produktuaren guztizko balioa.	NASTAT		Euskal ZTBPren definizioa erabili da, EUSTAT iturriarekin (Berrikuntza inkesta)
Fakturazio osoaren gaineko produktu berrien salmenta	0,21 (2019)	0,23	0,25	Zenbakitzailea: Produktu berrien edo nabarmen hobetuen fakturazioa 10 enplegu edo gehiagoko enpresentzat, industria-eta zerbitzu-sektore aurreratueta. Izendatzailea: Industria eta zerbitzu-sektore aurreratueta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen guztizko fakturazioa. Industria eta zerbitzu-sektore aurreratuak bat datoz CNAE 2009 kode hauek biltzen dituen core izenekoekin: 05-09, 10-33, 35, 36-39, 46, 49-53, 58, 61-63, 64-66, 71-73.	NASTAT		Euskal ZTBPren definizioa erabili da, EUSTAT iturriarekin (I+G estatistika) Parekatzea ahalbidetu dezake
Graduko STEM titulazioetako ikasleen %	Guztira: %29,5; Gizonak: %41,4; Emakumeak: %20,0	Guztira: %31; Gizonak: %41,4; Emakumeak: %24,0	Guztira: %34; Gizonak: %41,4; Emakumeak: %30,0	Zenbakitzailea: Zientzia, teknologia, ingeniariar eta matematika arloei (STEM) lotutako unibertsitate-graduako titulazioetan matrikulatutako ikasleak. Izendatzailea: unibertsitate-graduako ikasleak guztira	NASTAT		Unibertsitateen Ministerioa Unibertsitate-informazio sistema integratua (SIU gaztelaniazko siglen arabera)

